

Herri kirolari gazteekin hiru txapel Sakanara



Kirolak >> 12

Irakurri, Gozatu eta Oparitu, euskarazko liburuak irakurtzera animatzeko kanpaina apirilaren 23tik garagarriaren 30era



Kultura >> 14

Ibilaldi Handia, 25 urte bidea egiten

Zilarrezko ezteiak ospatzeko kontrako norazkoan eginen dute ibilbidea apirilaren 26an, 6:30ean abiatuta

Mendizaleek bi ibilbide izanen dituzte aukeran, 52,5 eta 24,4 km-takoak. 50 boluntario ariko dira lanean >> 13/16

Urdaingo auntzetxea lau ibilbideren abiapuntu izanen da

Udan informazio ohola jarriko da >> 5

Etxarriko Utzubar Txikiko urbanizazioa irailean hasiko dira >> 7

Poyoren obra bat CANeko desagertuen artean >> 9

Altsasuko Udala osasun erreformarekin kexu dago >> 7



Adin guztitako etxarriarrek eman zuten botoa, ikuskatzaileak bertan zirela.

Benetako galdeketa lortzeko lanean

>> 3



Gazte Burutakzio topaketa Altsasun >> 9



ZURE NEGOZIOA GIDAN IRAGARTZEKO DEITU

948 56 21 07
618 88 26 27

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA
%20^{ra}
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Pablo
Eutsi gogor eta segi beti bezain gazte.
ZORIONAK



Udane eta Iraide
Zorionak bikote!!! Sagardo gutxiyo eta txuleta ge-yo. Egun ona izan dezazuela biyek!!



Ainhoa
Zorionak zure 5. urte-betetzeari!!! Aurten kan-dela gehiago itzaltze-ko. Etxekoan partez bost muxu



Txapeldunak!!
Itza, itza, itza, AUPA IÑIGO ARITZA!!!

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

apiribilak-maiatzak

17-1

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Munduko musikak. Apirilaren 23an, asteazkenean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Orai. Apirilaren 26an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko Lurrazpin.

Antzerkia

Magic hop. Apirilaren 26an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Ipuin kontalaria

Ipuinen haria. Apirilaren 25ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Izaskun Mugika.**

Zinema

Doce años de esclavitud. Apirilaren 18an, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 20an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Bram barrabas. Apirilaren 20an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Ione sube al cielo. Apirilaren 18an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Philomena. Apirilaren 25ean, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 27an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteera

Altsasuko perimetroa. Apirilaren 27an, domekan. Altsasuko Mendigoizaleak.

Ziordia-Ekala. Maiatzaren 1ean, domekan. Altsasuko Mendigoizaleak.

Txirindula irteerak

Zapardegia. Apirilaren 20an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. Burunda mendi bizikleta taldea. **40 km.**

Urkillia mendizerra. Apirilaren 27an, domekan, 7:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. Burunda mendi bizikleta taldea. **70 km.**

Erakusketak

Literatura eta artea uztartuz. Apirilaren 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. Iñigo Arizta ikastola.

Nazabal arte eskola. Maiatzaren 1etik

15era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Literatura

Nur liburu sailaren idazlea. Apirilaren 22an, asteartean, 17:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Toti Martínez de Lezea.**

La tecla rota. Gidoi-foruma. Apirilaren 23an, asteazkenean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Joseba Salegi.**

Tailerrak

Munduko sukaldaritzak. Apirilaren 18an eta 25ean, ostiralean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Tatu tailerra. Apirilaren 22an, asteartean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Zirkoa. Apirilaren 24an eta 25ean, ostegunean eta ostiralean, 16:00etatik 19:00etara Altsasun. **646 720 133.** **Amai taldea.**

Bestelakoak

Munduko jolasak. Apirilaren 26an,



larunbatean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Euskararen kate hautsiak. Apirilaren 29, asteartean, 19:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Liburuaren aurkezpena. EHE.**

Deialdiak

Hipotekek kaltetutako Plataforma. Apirilaren 18an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 18an, ostiralean, 20:00etan Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranazko plazetan elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 20an eta 27an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan,

elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Apirilaren 21ean eta 28an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 25ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uhartea Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

Elkartasun eguna. Apirilaren 26an, larunbatean, 11:00etatik aurrera Etxarri Aranatz.

Langileok erabaki, Euskal Herriak erabaki dezan. Maiatzaren 1ean, ostegunean, 12:00etan Altsasuko Foru plazatik. **LAB.**



Zure negozioarendako
atea interneten
8.394 bisita martxoan

www.
GUAIXE.net

>> Etxarri Aranatz

Benetako galdeketa lortzeko lanean segituko dute

Aparteko gorabeherarik gabe egin zen herri galdeketa. Herritarren %42,76k parte hartu zuen eta gehienek independentziaren aldeko boza eman zuten

Herri galdeketa emaitza eman aurretik, A13 ekimeneko ordezkariak, Manu Gomezek zoriondu egin zituen Etxarri Aranatz eta Lizarragabengoako herritarrak. “Demokrazia praktikatu nahi duten herritarrentzat gaurkoa egun handia izan da, herriari hitza emateko aukera luzatuta, herritarrek hitza hartu dutelako”.

A13ko kideek igandean jakinarazizuten, lanean jarraituko dute, “orain arte baino gogo eta indar gehiagorekin, gaurkoan ariketa sinbolikoa izan dena bihar benetako izan dadin, erabakitze eskubidea erabat gauzatu arte”. Euskal

Herritarrek erabaki nahi badute, haien esku dagoela gaineratu zuen Gomezek. Aldi berean, garagarrilaren 8ko Gure Esku Dago ekimenak antolatu duen giza katean parte hartzeraz deitu zuen. Egun horretan Durango eta Iruñea lotuko dituen giza-katea egingen da.

Prozesuaren garrantzia

Gomezek Beleixe Irratian (FM 107,3) esan zuenez, “emaitza bera garrantzitsua izanda, prozesua bera burutzeak garrantzi handiagoa du”. Azaldu zuenez, “Etxarri Aranatz erabakitze eskubidea benetako demokraziari bizkar ematen dioten boteredunen monopolioetik atera eta herritarren esku jarri da, zilegitasun eta berme guztiarekin eta horixe da benetako emaitza”.

Sinboloaren indarra



A13 ekimenak antolatutako herri galdeketa “ariketa demokratikoa, ariketa sinbolikoa” zen, “baina sinbolo guztiek duten indar eta pisuarekin”. Igandean lau urte eta erdi bete ziren Kataluniako Areyns de Munt herrian independentziari buruzko aurreneko herri galdeketa egin zela. Atzetik 556 herri galdeketa etorri ziren eta azaroaren 9rako deitua dutena ere. Igande gauean bertan A13 ekimenekoek jakinarazi zuten herri galdeketa antolatze jaso eta barneratutako ezagutza eta esperientzia guztia Euskal Herriko beste edozein herri edo lantalderen esku uzteko konpromisoa hartu dutela.



Emaitza eta alderaketak



Etxarriarrek bozka ematen.

Nahi duzu Euskal Herria independente bateko herritarra izan? galderari erantzuteko aukera zuten 1990 etxarriar inguruk. Aukera 851k (%42,76) baliatu zuten (12:30ean parte hartzeak %25a gaintitu zuten). Galderari baietz 804k erantzun zioten. Ezezkoa, berriz, 18k eman zioten (%2,12). Boto txuria 26k aukeratu zuten (%3) eta baliogabeak, azkenik, 3 izan ziren (%0,35).

Gorabehera dagokienez, oso gutxi izan ziren. Aldez aurretik bozkatu zuen herritar batek atzo berriro botoa eman zuen eta aldez aurretik emandako botoa baliogabetu egin zioten. Bestalde, bi bozka azalik gabe eman ziren eta beste azal batzuetan bi boto paper zuden. Berdinak baziren bat zenbatu zen eta ezberdinak zirenak baliogabetu.

Azken hauteskundeetan parte

hartze handia izan zen Etxarri Aranatz. 2011ko maiatzaren 22an Nafarroako Parlamentua eta udala berri ziren. Azken horretarako bozketan parte hartzea %72,11koa izan zen (1.404 boto). Parlamenturako, berriz, %72,32 izan zen parte hartzea (1.408 boto). Bestalde, 2005eko otsailaren 20an Europako Konstituzio Itunari buruzko erreferenduma egin zen eta 808 etxarriarrek eman zuten botoa orduan (%42,4). 2000ko otsailaren 6an, berriz, festen hasiera data zein izanen zen zehazteko galdeketa antolatu zuen udalak eta 787 etxarriarrek eman zuten iritzia (%39,31).

Areyns de Munten egin zuten Katalunian aurreneko independentziari buruzko herri galdeketa. Parte hartzea %41ekoa izan zen. Herritarren %96,2k baiezkota eman zuten eta ezezkoa %2,3k.

Ikuskatzaileen iritzia

Ikuskatzaileen izenean Anna Arquék hartu zuen hitza, “demokraziaren festa” izan zena gorai-patzeko. Atzoko moduko egunak “biharko egunagure modura” egiteko aukera ematen dutela adierazi zuen. Atzokoarekin etxarriarrek demokraziari baiezkota eman ziotela ziurtatu zuen Arquék. Antolakuntza bikaina gorai-patu zuen eta horregatik ziurtatu zuen herri auto antolakuntzak eta transbertsalitateak irabazi zuela.

Etxarri eta Kataluniako demokratak ez daudela bakarrik adierazi zuen Arquék: “Egun Europan une apartak bizi dira. 25 milioi pertsonen autodeterminazio prozesu demokratikoa dute euren herrietan”. Ziurtatu zuenez, kataluniar, eskoziar edo euskal herritarrek jaso ditzaketen bidegabekeriak eta mehatxuak europar guztiendako irain dira, “Europar Batasunaren barruan autodeterminazio eskubidea urratu nahi dutelako”. Autodeterminazio eskubidea aitortutako eskubidea dela gogorarazi ondoren eskatu zuen argi izateko herri guztiak nazioak direla, “badakigu”. Irazabalbeitiaren esanetan, “Europar Batasunak bere konstituzio edo eta etorkizunaren inguruan iritzia eman nahi duen herrialde guztiei gutxieneko estandarrak ahalbiderratu beharko lizkioke, egun ez dagoen baldintza eta beraz gabezia demokratikoa dena”.

Egin zaitetz
bazkide
www.guaixe.net





Aingeru Mikeo

Gure esku dago

astekoa

Nor ez da barrez lehertzen politikarientzepenak ikusita? Groucho Marxek zioen 'politika arazak bilatzeko artea dela, behin aurkituta, diagnostiko nahasi bat egiteko eta ondoren okerreko botika emateko'. Endredo hoberik? Berriki izandugu ikuskizun bikaina, hitz eta pitz, 'bai' zena 'ez' eta azkenean, putza eta puzker. Hori bai, nafarren erara, Madrilekiko

morrontza hobetsita.

Krisiaren ondorioz ere ikasi dugu karpa-arrainak ur lohitsu eta uherretan bezain trebe moldatzen direla goi-politikariak, azpijoko, iruzur, "b" kontabilitate, eta abar. Hori bai, Nafarroagatik eta Espainiagatik! Gora Kristo Rey! Bankariak, Jaungoiko berriak! Haiak zehazten dute politikarientz doktrina. Nola ez?

Haien zerbitzura, leial! Informazioaren manipulazioa, lotsagabekeria eta gezurrak. Susperaldia hasi da! Kar-kar-kar (Botin, Rajoy, Barcina, Goikoetxea...). Justifikatuta dago arpilaketan segitzea (Gora finantzak eta gora espekulazioa!). Baina, nori axola zaizkio jendartearen mixeriak? Langabe eta langileen neke tristek? Enpresarien

itolarriak? Zerbitzu publikoen eskasiak? Populazioaren zahartze etengabea? eta abar. Ze aspergarria! Ez al dute xarma handiago Alhambra jatetxeko menu deliciousak? Edo klinika pribatuetako maindire almidoituak? Edo Miarrizteko Casinoko edergarri urreztatuak? Edo Madrileko errege protokoloetako distirak? Edo Bruselako Les Galeries Saint

Hubert erakuslehoetako glamourrak?

Utzi politika politikarientz esku, eta disfrutat! Jada, Europarako hauteskunde zirkua hasita dago. Hartu txartela lehenengo lerroko aulkirako. Emanaldia hastear dago: 'Gure esku dago'.

aingerumi@gmail.com

hara zer dien

Emakumeak gure gorputzak: gure desioak

Gaurko gaia aukeratzeko aste honetan gertatu zaizkidan bi gertarik lagundu didate. Alde batetik, irakurtzen ari naizen azkeneko liburuak Nacidas para el placer Mireia Darderrena, eta nirekin kontsultan dagoen emakume baten hitzak "... konturatu naiz nire desioa nirea dela eta nirekin daramadala beti, baina egindako lanarekin ohartu naiz askotan hori ahaztu egin zaidala".

Emakumeen desioa kontsultako gaia izaten dugu sexologoek, eta askotan desio ezarekin datozen emakumeen diskurtsoetan desioa kanpotik datorren zerbitzu bezala bizitzen dutela entzun daiteke.

Hasierako harreraren, sexologoen lana desioa zerekin lotzen dugun aztertzea eta horren inguruko heziketa ematea izaten da. Hau da, gehienetan desio sexuala, harreman sexual koitalak edukit

kitzeko gogoarekin lotzen dugula eta daukagun eredu sexualen desioa oso fokalizatuta dagoela genitalekin.

Horrela, desio sexuala edukitze gogoa genitaleatik at beste aukera edo praktika sexualera zabaltzen dugu (begiradak, besarkadak, laztanak, hitz goxoak, ...) Beraz, lehenengo pausuan desioa foko genitalean soilik ez kokatzen saiatzen gara.

Baina horrekin batera eta Mireiaren liburuan argi azaltzen den moduan, emakumeekin egiten den lanean, beraien gorputzaren ezagutza eta plazer gaitasuna landu behar dira. Urteetan, gure gorputzen bizipenak mezuz inguratuta egon dira. Plazera bekaturarekin lotu da, masturbazioa ez da onartuta egon emakumeetan, eta gaur egun oraindik beraien gorputzarekin plazera bilatzen duten emakumei "salida" eta "guarra" deitzen zaie. Mezuak eta kanpotik iristen diren oihartzunak albo batera utzita, ezagutza da biderik eraginkorrena.

Gure gorputzarekin, eta berare-

kin lortu dezakegun plazera gureganatu behar ditugu, eta gure sexualitatea bizitzekoan, gozamenaren gure ardura dela eta ez besteara jakin behar dugu. Gure gorputzak izugarriko aukerak eskaintzen dizkigun ibilbide horretan, eta horretarako ezinbestekoa da gure genitalak ezagutzea ere eta gure gorputzaren atala diren moduan integratzea.

Gure gorputza ezagutu, bizi, eta sentitu, gure desioekin topo egiteko bide bakarra delako. Bidaia berri honetan, bakarka edo aukeratzen dituzuen bidelagunekin bidaia on!!

Olatz Berastegi. Lilima taldea

barrutik kanpora

Hipoteka mailegu bat itzuli ezinik, egoerari aurre egiteko hainbat aholku (II)

Egoera hauei aurre egiteko hainbat gomendio:

Gaur egun edo aurrerantzean ordaindu behar ez baduzu eta oraindik ere jakinarazpen judiziala heldu ez bazaizu, egin beharrekoak: Hipotekakoa ez den banku edo kutxa batean kontu bat ireki; zure familiaren diru-sarrerak eta gastuak kontu berriari jarri eta HKPko kideren batek lagundurik, eman idazki bat bankua-

ri zure zailtasunak azaltzeko eta negoziazio bat eskatzeko.

Abal-emailerik baduzu, egin beharrekoak: hipoteka ordaintzeko dituzun zailtasunen berri eman, eta esan balitekeela bankuak ordainketa eskatzea eta abala egiten dizuten banku berean kontuak badituzte, zuk egin duzuna egin beharko dute (beste banku batean kontu bat ireki, helbideratzeak eta diru-sarrerak

aldatu, planak atera eta epean duten libretak kendu...).

Jakinarazpen judiziala jaso baduzu, egin beharrekoak: jarri harremanetan HKPrekin eta eskatu doako justizia eta gehiegizko klausulak deuseztatzeko eskatzen duten dokumentuak prestatu.

Zure etxea enkantean atera bada, egin beharrekoak: aurreko egoeran bezala jokatu, eta, gai-

nera, bankuarekin negoziatu alokairu sozial bat ematea eta zorra barkatzea.

Etxetik kanporatua izan baino lehen, egin beharrekoak: jarri harremanetan HKPrekin eta Oinarritzko Gizarte Zerbitzuekin etxetik kanporatua izan baino lehen.

Etxetik kanporatua izan ondoren, egin beharrekoak: jarri harremanetan HKPrekin, alokairu sozial bat lortzeko eta ordaindu gabeko zorra barkatzea eskatzeko eta jarri harremanetan Oinarritzko Gizarte Zerbitzuekin alokairu sozialeko etxebizitza bat eskatzeko.

Hipotekak Kaltetutako Pertsonen Plataforma

gora/behera

Irakurri, Gozatu, Oparitu

Irakurtzeko eta liburuak merke eskuratzeko kanpaina aurki martxan da.

Osasun Departamentua

Profesionalen eta toki erakundearen parte hartzea faltan du Gobernuak proposatzen duen erreformak.

ZUZENKETA >>>

Aurreko astean Arferen itxierari eta epaiketari buruzko albistean okertu eta izen bat gaizki eman genuen. Kontrako epaia jaso zuena ez zen Isabel Lezea, Isabel Aznar Lezea baizik. Barkamena sortutako nahasmenegatik.

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

gutunak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzi

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Iker Uribeetxebarria Garmendia
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Salburordetza

>> **Urdiain**

Auntzetxea abiapuntu

Lau ibilbideren berri emanen duen argibide ohola jarriko du udalak udan

Aurreko urteko udan Urdiaingo Udalak kontratatuko bi langilek Urriztelain, igerileku ondoan, dagoen borda konpondu eta itxurraldatu zuten. Teilatua konpontzeko premiak bultzatu zuen udala lan hori egitera. Eta behin horretan hasita auntzetxearen hegoaldeko

herena aterpe bihurtu zuten.

Sebas Aristizabal alkateak azaldu digunez auntzetxea 4 ibilbiderako abiapuntu bihurtzea nahi du udalak. Horregatik, udan informazio ohola jarriko dute. Ibilbideetako batek San Pedro ermitara eramanez ditu oinezkoak. Beste batek Sarabe ibarra ezagutaraziko du. Ibilbideak behar bezala seinalez-

tatuko dituzte.

Hirugarren bidea dagoeneko seinaleztatuta dago. Nafarroa Bizirik ekimeneko kideek gaztelu txiki moduko seinale gorriekin markatu dute Irurritako gaztelurako igoera. Sarabeko ibarraren sarreatik abiatzen da bide hori eta Laieneko haitzen iparraldeko magala igo beharko da.

Galtzada

Laugarren bidea izanen da guztietan luzeena. Urriztik eta Sarabeko haitzen artetik iparraldera gora joko du ibiltariak Itxuspurura igozko. Garai batean Urdiain eta Ataun lotzen zituen galtzada zatiak agerian uzten ari da almintea. Aristizabalek azaldu digunez, dagoena agertaraztea da helburua. "Basoak daukan zentzua erabat galdu gabe, erabat markatu gabe,



Garai batean Urdiain eta Ataun lotzen zituen galtzada garbitzen ari dira.

dagoena adieraziko da". Ibilbide horretan ez dituzte seinale ugari jarriko, basoaren izaera ukitu gabe egin nahi dutelako.

Berrauneko erreka ondoko bidean eskuinera hasten da galtzada. Ibiltariak tarteka agerian utzitako galtzada zatiak zapalduko ditu. Beste tarte batzuetan bidea nondik nora joanzen iru-

dikatuko du, handik metro batzuetara beste galtzada zati bat azalera baitu almintea. Basoan gora egin ahala egungo baso pistekin gurutzatuko da ibiltaria eta zati horretan galtzadaren bidea jarraitzen dutela ohartuko da. Goian, orbel artean, galtzadarriek iparraldeko bidea markatzen segitzen dute.

Aurrekontua

Aristizabalek esan digunez, udalak 420.000 euro inguru kudeatuko ditu aurreko urtean baino kopuru txikiagoa da. Pasa den urtean herriko eskolan konponketa lan bat egin zuen udalak. Horretarako Hezkuntza Departamentuaren diru-laguntza

jaso zuen, baina udalak ere bere zatia jarri beharra zuen eta finantziarioan eragina izan zuen. Aurreko argiteria publikoak hobetzeko neurriren bat besterik ez da aurreikusitako inbertsioen atalean. Azken bi urteetan bezala, duden zerbitzuei eustera bideratuta dago aurrekontua, alkateak azaldu digunez.

>> **Irurtzun / Arakil**

Bikoteka irakurtzearen onura

Hezkuntza Departamentuak jakinarazi du programari esker ikasleen irakurriaren ulermena 11 puntu hobetu dela

Irurtzungo Atakondoa eskolako Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleak (100 bat), Nafarroako beste 14 ikastetxetako ikasleekin batera, bikoteka irakurtzeko programan parte hartzen ari dira. 730 guztira. Bikoteka irakurtzen hezkuntza-programaren ebaluazio probek ikasleek irakurritakoren ulermena 11 puntutan handitu dela adierazi dute. Jose Iri-

bas hezkuntza kontseilariak esan duenez, ikasleen arrakasta akademikoa lortzeko funtsezko elementua da gaitasun hori ongi garatua izatea.

Programaren funtsa elkarrekin ikasteen datza. Ikasleek batak besteari laguntzen diote eta batera ikasten dute, interaktuatzeko gidoi egituratu bat jarraituz. Ikasleen artean maila handia dagoenean batek tutorearen eta besteak tutorearen pekoa rola joko ditzakete. Elkarrekiko harremana izaten dute eta alde txikia dagoenean



Haurrak Atakondoa ikastetxetik ateratzen.

rolak alda ditzakete. Aldi berean, ikasketa prozesuan inplikazioa handitu eta autoestimua eta eran-

tzukizuna hobetzen da. Programaren osagarri dira familiak, seme-alabak irakurtzera bultzatzera

animatuz. Ikastetxeetako irakasleek, bestalde, euren esperientziak partekatzen dituzte.

Programa

Astean 30 minutuko bi saio egiten dituzte, hiru hilabetez, hau da, 30 minutuko 24 saio eskolan egiten dituzte eta beste 24 etxean. Beti ere, euren adinari egokituak testuak irakurtzen dituzte. Irakurketa hasi aurretik eta ondoren ikasleek galdera batzuei erantzun behar izaten diete. Irurtzunen aurreko ikasturtean hasi ziren programa horrekin. Bizpahiru irakasle trebatu ziren eta gainontzeko irakasleei programaren berri eman zieten.

SAKANA

Euskarazko produktuen katalogoko nobedadeak e-postaz jasotzeko aukera



Neska-mutikoak jostailuen erakusketako eskaintzari so.

Euskal Herriko lurralde eta ezauzgarri oso ezberdinetako hainbat herritako udalek egin dute bat euskarazko produktuak sustatzeko egitasmo honetan eta tartean da baita Sakanako Mankomunitatea ere.

Katalogoan era askotako produktuen berri ematen da. 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako produktuak dira, eta 8 ataletan sailkatuta daude: aldizkariak, musika, liburuak, komikiak, informatika, jos-

tailu eta jokoak, filmak, eta gurasoentzako materiala. Orain, katalogo hori paperez eta webgunez ikusteko aukera izateaz gain, buletinean harpidetuta, e-postaz nobedadeak jasotzeko aukera eskaini dute.

www.katalogoa.org

Katalogoa bieuskarriezberdinetan zabaldu ohi da. Alde batetik paperezko edizioan, urtean behin argitaratu eta zabaltzen dena, eta 130.000 aletik gora banatzen dira. Eta bestetik, www.katalogoa.org helbidean, Interneteko edizioa dago. Interneteko gune horretan paperezko katalogo osoa ikus daiteke, baina horretaz gain paperezkoan sartu ez diren produktu gehiago ere aurkitu daitezke, eta produktuetara

edo argitaletxeetara zuzenean joateko loturak ere ematen ditu.

Maiztasunez eguneratzen da, eta urtean zehar argitaratzen diren produktuak kontsultatzeko aukera ematen du Katalogoan hainbat produkturen erreferentzia zehatza

ematen da: produktuaren izena eta irudia, egilea, adin-tartea, argitaletxea, eta gutxi gorabeherako prezioa. Orain, buletinean harpidetzarekin batera, eguneraketa horiek e-postan jasotzeko aukera eskaini dute.

etxarri aranazko udala

**HASIERAKO ONESPENA
HIRIGINTZAKO PLAN ALDAKETA XEHEKATUA:
HIRIGINTZA ARAUDIA**

Etxarri Aranazko Udalak, 2014ko apirilaren 7an egindako osoko bilkuran aho batez, ondoko akordioa hartu zuen

1 -Hasiere batez onestea Etxarri Aranazko udalak sustatutako "Hirigintzako Planaren aldaketa zenatzaren espediente" (antolamendu xehekatuko determinazioak): "Hirigintza araudia" Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 74. artikuluan 79.3 artikulutik hara igorrita, xedatutakoari jarraituz.

2 -Espedientea hilabeteko epean jendaurrean jartzea, iragarkia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, iragarki oholean eta Foru Komunitateko egunkarrietan jarrita

Etxarri Aranazten, 2014ko apirilaren 11an.

Alkatea: Jose Ignacio Bakalko Aristorena



**ETXARRI
ARANAZKO
UDALA**

>> Etxarri Aranatz / Bakaiku / Iturmendi

Maiatzarekin batera maiatza jasotzera

Aste Santuko oporren ondoren etxarriarrek, bakaikuarrek eta iturmendiarrek maiatza jasoko dute. Maiatzaren batean, ostegunean, helduko diote egiteko horri hiru herrietan. Bakaikuarrek eguerdian ekinen diote lanari. Ordu erdi geroago hasiko dira etxarriarrek maiatza zutitzen. Iturmendiarrek, berriz, 18:00etan hasiko dira lanean, herriko plazan.



>> Altsasu

Ikasgelan ingurumenarekin konpromisoa hartuta

Sagrado Corazon ikastetxeke DBHko 30 ikasle eskola-Confint prozesuan parte hartzen ari dira

Nazioarteko gazteen konferentzia da Confinta eta planeta zaintzea du helburu. Munduko hainbat herrialdeetan garatzen ari den egitasmo horren bidez eskola mailako ingurumen arloko konpromisoak hartzen dituzte ikasleek eta, aldi berean, Bartzelonan izan den estatuko Confint batzarrerako ordezkariak aukeratzen dira. 2015eko udaberrian Bruselan egingen da Europako bigarren Confint topaketa.

Altsasuko ikastetxean martxoaren 21ean lau ardura bere egin eta sei ekintza aurrera eramateko

adostu zuten. Hondakinen gaikako bilketaren berri emanen dute eta haren kontrola egingen dute. Baliabideen erabilera eraginkor eta arduratsuen inguruan sensibilizazioa eta informazioa zabalduko dute. Negutegi gasen isurketa murrizteko bizikletaren erabilera sustatu eta ibilgailu kutsakorren erabilera ekidinduko dute. Aldi berean, bizikletekin argindarra sortuko dute eta, azkenik, nekazaritza jasangarria sustatzera animatu dira ikasleak. Horiek aurrera eramateko makina batekintza egingen dituzte. Azkenik, eskualdeko Confintera joateko aukeratu zituzten ordezkariak Imanol Lobo, Maialen Aramendia,



Ikastetxeke ekitaldietako bat.

Xabier Ruiz de Arbulo eta Jesus Palop izan ziren.

SAKANA

Lan osasuna Osasunbidean

LABek mutuetatik osasun sistema publikora pasa nahi du langileen osasun estaldura

Aldarrikapen hori zabaldu zuten aurreko ostegunean LAB sindikatuko 30 delegatuk Irurtzungo osasun etxe aurreko aldean. Europan duela 60 urte gertatu bezala, mutuak desagertzearen alde agertu ziren kontzentratutakoak. LABeko kideak, batzarrean, mutuen baliabideak eta eskuduntzak osasun sistema publikora pasatzeko lan egiteko konpromisoa hartu zuten. Hilaren 28an Lan Osasunaren eguna izanen da LABek lantokietan mobilizazioak iragarri ditu.



Aurreko osteguneko bilkuran, osasun sistema publikora pasatzea eskatzeko.

Bestalde, sindikatu abertzaleak jakinarazi du gehiengo duen Bakaikuko Guema enpresan osasun gertaera arruntei estaldura emateko enpresa hitzarmena

dutela. Ezbehar profesionaleri estaldura emateko Gizarte Segurantzarekin harremanetan jarriko dira aurki Guemako LABeko delegatuak.

>> Urdiain

Bi urterako lan hitzarmena Magotteauxen

120 langileri eragiten die

ELA sindikatuak jakinarazi duenez, aurten eta heldu den urtean indarrean izanen den lan hitzarmena sinatu dute Magotteauxen zuzendaritzak eta enpresa batzordeak (ELA 5, LAB 3 eta UGT 1). Adostutakoaren arabera Urdiaingo lantegian ez da indarrean jarri-

ko lan erreforma eta ultraaktibitate mugagabea izanen du hitzarmenak. ELAtik azaldu dutenez, hitzarmena ez betetzeko bideak itxi dituzte, ez dago malgutasunik eta arbitraia erabiliko da bi aldeek esandakoa betetzeko konpromisoa hartzen badute. KPI igoera ere izanen dute langileek.

Hitzarmen onak lortzeko ELAtik ezinbestekotzat jo dituzte antolakuntza ona eta sindikatze maila handiak izatea. Enpresa hitzarmenak lan erreformaren ondorioak neutralizatzeko eta adostutakoa betetzeko bide onena direla nabarmendu dute sindikatutik.

MOTZAK

Federalismoaren eta III. Errepublikaren aldarria Altsasun

Espainiako II. Errepublikaren aldarrikapen eguna gogoan izan zuten astelehenean Altsasun. IUN-NEBkeguerdian ekitaldia antolatu zuen udaltxe parean dago soldadu langileen 95. batailoia omenezko orogarriaren aurrean. 30 bat pertsona bildu ziren ekitaldian. Tartean ziren PSNko zinegotziak, Geroa Baiko bat eta IUN-NEBeko. Azken horrek, Arturo Carreño Parrak hartu zuen hitza errepublikaren balioak, federalismoa eta III. Errepublika aldarrikatzeko. Oroigarriaren aurrean gogoan izan zituzten lan behartuetan Altsasu eta Agurain arteko trenbidea bikoizten lan egin zuten errepublikar haiek, baita euren pentsaera errepublikar, sozialista edo komunistagatik errepresaliatuak edo erailak izan zirenak ere. Bereziki gogoan izan zituzten hil zituzten Altsasuk eta Sakanako errepublikarrak. Askatasuna, berdintasuna eta gizarte justizia defendatu zituztenak ez dituztela ahaztuko gaineratu zuen Carreñok. Lore eskaintza, Internazionala kantarekin eta auzatearekin osatu zen ekitaldia. Arratsaldean, berriz, Jose Migel Nuin IUN-NEBko koordinatzailearen eta Javier Drona historia-lariaren hitzaldia izan zen.



Udalek euskal herritartasuna bultzatzeko herri dinamika abiatzeko deia egin dute

Udaltzaren mozioa ezohiko osoko bilkuretan onartu zituzten

Pasa den astea akaberan ezohiko osoko bilkurak egin ziren Uharteko Arakilen, Lakuntzan, Arbizun, Bakaikun eta Olatzagutian. *Udaltzaren aurkeztutako Euskal Herritarak gara eta ozenki adierazi nahi dugu mozioa izan zenez tabaidatu eta bozkatuzen gai bakarra. Mozio bera ohiko bilkuran aztertu zuten Iturmendi. Euskal Herriko 68 udalek onartu dute aipatu mozioa.*

Onartutako mozioan, udalbatzek euskal herritartasunaren aldeko herri dinamika bultzatzera deia egingo dute. Aldi berean, herritartasun hori agiri ofizial baten bidez adierazteko zilegitasuna aldarrikatzen dute. Era berean, herritar guztiak gonbidatzen dituzte jendaurrean adierazteko "garena eta sentitzen duguna", kaleetan eta eraikin publiko nahiz pribatuetan Euskal Herri-

ko ikurrak jarri. Azkenik, udalbatzek Etxarri Aranatz herri galdeketa babesa eta zilegitasuna eman zioten eta bat egin zuten Gure Esku Dago ekimenak garagarriaren 8rako antolatu duen erabakitzeko esku-bidearen aldeko giza katearekin.

Presoen herriratzea eskatzeko eguna

Apirilaren 26rako Etxarri egun osoko egitaraua antolatu dute

Euskal presoen Euskal Herriratzea eskatzeko Elkartasun Eguna antolatu dute. Goizeko 11:00etatik aurrera haurrendako puzgarriak eta animazioa izanen da. 12:30ean harri probak iragarri dituzte. 14:30ean herri bazkaria izanen dira eta txartelak ohiko tokitan jarri dituzte eskuragarri. 17:30ean Batukada egonen da herrian barna. Presoen herriratzea eskatzeko manifestazioa izanen da 20:00etan. Hura bukatutakoan eta ordu txikiak arte Gariak 26 taldearekin dantzaldia iragarri dute. Tartean, zezensuzkoa aterako da. Egunean zehar dantzariak, zanpantzarrak, taloak, txoznak eta beste izanen direla iragarri dute.

Igandean hasiko da Ikurren Legea aldatzeko sinadura bilketa

Eraikin publikoetan ikurrina jartzeko aukera bermatzea eskatzen da

Aberri Egunerako Independentistak sareak deitutako manifestazioan jende pila biltzea aurreikusten dela baliatuta, Guztion Nafarroan Guztion Ikurrak herri ekimen legegilearen sustatzaileek jakinarazi dute igandean sinadurak biltzen hasiko direla. Manifestazio hasieran eta akaberan jarririk dituzte horretarako mahaia. Horren ondoren, herriz herriko bilketari ekinen diote. Sindikatuen laguntzaz lantokietara ere eramanez dute sinadura bilketa.

Igandean Aberri Eguna

Independentistak Sareak igandean Iruñerako deitu du. Golem-etik aterakodan manifestazioaren leloa *gehiengoaren nahia, independentzia* izanen da. EHBildu koalizioa osatzen duten alderdiek Iruñera joateko deia egin dute. Bestalde, EAJ-PNVk Bilbon ospatuko du Aberri Eguna. *Euskadi Europan begira* leloa aukeratu du aurtengo edizioarako. Bilboko Plaza Berrian, 11:30ean, egingen dute ekitaldi politikoa jeltzaleek.

Herri eskolen eguna gerturatzen

Maiatzaren 10erako egun osoko egitaraua antolatu dute Altsasun Sakanako herri eskolek, Sortzeneketa Guraso elkarteek. Ospakizunerako *Sakana herri eskolekin sortzen* leloa aukeratu dute. Festaren laugarren edizioan herri bazkaria izanen da. Hartarako txartelak eskuratu nahi dituenak Guraso elkarteetara jo beharko du. Helduengatik 9 euro ordaindu beharko da eta txikiengatik 4.

MOTZAK

Aralarko etxerako egur loteak eskatzeko epea zabalik

Aralarko Elkarteak jakinarazi du dagoeneko etxeetarako egur loteak eskatzeko epea zabalik dagoela. Interesatuak maiatzaren batera arte eman dezakete izena. Horretarako mendizainari hots egin behar zaio, 636 186 730 telefonora. Egur loteak 15 euroko balioa izanen du eta dirua Caixaren kontu batean sartu beharko da (2100 53 8579 2200022154).

Aste Santua Aralarren

Urtero moduan Aralarko santutegiak Aste Santuko elizkizun bereziak hartuko ditu. Ostegun eta Ostiral Santuan mezak 16:00etan izanen dira. Larunbatean, berriz, 20:00etan hasiko da elizkizuna. Pazko Igandean santutegiak 12:30ean meza nagusia hartuko du. Aralarko Deun Mikel Goiaingueruaren Kofradiatik jakinarazi dutenez, igandean, 16:30ean, Aralarko aingeruaren irudiak bere herriz-herriko ibilbideari ekinen dio. Ohi bezala, makina bat lagunez lagunduta santutegia eta Baraibar arteko ibilbidea egingen du basoz, Baraibarre 19:00etan iristeko.



Oporren aurreko pintxo festa

Oporren aurretik elkar despeditzeko Itsasi euskaltegiko goizeko zazpi taldeak pintxo festa egin zuten atzo. Zazpi taldeek zazpi pintxo ezberdin prestatu zituzten eta ikasgelaz ikasgela pintxoak nola egin zituzten azaldu zuten. Ondoren probatzeko eskaini zituzten. Gainera, pintxoak aurkezteko ikasgelak apaindu zituzten.

» Arbizu / Etxarri

Errenta aitortpena euskaraz egiteko gonbitea

Herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskarazkoak izan daitezke bultzatu eta, bide batez, administrazioaren euskalduntzea sustatu nahi da

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Arbizuko eta Etxarri Aranazko etxe guztietara esku-orri bana banatu du, herritarrek errenta aitortpena euskaraz egitera animatuz. Dagoeneko Internet bidez egin daiteke eta Ogasunaren bulegoetan eta haren erakunde kolaboratzaileen etan hilaren 14tik garagarriaren 24ra arte.

UEMAk sustatu duen kanpaina horrekin herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskarazkoak izan daitezke bultzatu nahi du eta, bide batez, administrazioaren euskalduntzea sustatu. "Hizkuntzaren erabilera normal bilakatu behar bada, ezinbestekoa da herritarrek euskara erabiltzeko hautua egitea ahalik eta eremu gehienetan". Sakanako herritarrek arlo horretan ere aitzindariak izatera animatu ditu UEMAk.

Sakanan herritar askok euskaraz bizitzeko hautua hartu duela gogora ekarri du UEMAk eta hori errenta aitortpena egitekoan gauzatzeko eskatu du. "Euskararen normalizazio bidean ematen dugun urrats handia izan liteke baldin eta herritarren babesa eta parte-hartzea handitzen bada". Aparteko ahalegin berezirik ez duela eskatzen eta zalantzarik izanez gero UEMAk, Mank-en edo udaletan argibideak emateko prest daudela jakinarazi du.

44 aitortpen

Pasa den urtean errenta aitortpena euskaraz egin zuten arbizuarren eta etxarriarren kopurua. Arbizun egingandako aitortpen guztien %2 eta Etxarriin egingandakoen %2,64 izan ziren bakarrik euskaraz. Hobetzeko tar- te handia dago.

» Etxarri Aranatz

Irailean hasiko dira Utzubar Txikiko urbanizazio lanak

Aldapasoro auzoko sareen eta zolaren berritzea heldu den urtean egingen da

Etxarri Aranazko Udalak 1.718.649,18 euroko aurrekontua onartu du Bilduren eta NaBairen aldeko botoekin eta PPren kontra-koarekin. Joxi Bakaikoa alkateak gizarte gastua ez jaisteko ahalegi- na egin dutela nabarmendu du. Aldi berean, gizarte zerbitzuen bidez ahalik eta kontratazio gehien egiteko modua jarri nahi izan du Etxarri Aranazko Udalak eta zortzi bat izanen dira kontratatuak. Zorrak kentzeko dirua ere bideratu- tuko du udalak.

Inbertsioen atalean Utzubartxi- kiko urbanizazioa dago. Alkateak esandigunez, ongikoz irailean hasi- ko lirateke lanak. Ura, gasa eta argindar sareak, espaloia eta zola- dura berriak egingen dira ikastola- ren eraikin berrira, futbol zelaira eta hilerrira eramateko. Eskola pareraino egingen da urbanizazioa.

Bestalde, Bakaikuak jakinara- zi digu heldu den urtean berrituko



Ikastola berria, kanpo santua eta futbol zelaia hartuko ditu urbanizazioak.

direla Aldapasoro auzoko ur hor- nitze eta saneamendu sareak eta zoladura. Toki Administrazio Departamentuarekin finantziario hitzartua dagoela jakinarazi digu alkateak. 2009-2012 Toki Inbertsio- en Planean erreserbangelditutako lana izan zen Aldapasorokoa, 2011n egin zitekeena. Orduan 700.000 euro- ko inbertsioa aurreikusten zen.

PPko Juan Antonio Extreme- rak aurreontuen kontra bozkatu zuen eta salatu zuen Etxerat era- kundeari 4.000 euro eman izana.

Diru publikoa preso dauden ETA- ko kideen bisita bidaiak diruz laguntzeko erabiltzea "amorrage- rria" da Extremearendako.

Inbertsioak >

Elkarte, erakunde hitzarmenak	342.306
Utzubar txikiko urbanizazio lanak	97.944
Festak, erromeriak	72.000
Kultur programazioa	46.000
Argiteria publikoa	45.600
Musika eskola	33.000
Herri mantenua, altzariak	9.000
Baso hobekuntzak	5.500
Liburu digitala	3.000

» Altsasu

Udala ez dator bat osasun-arreta jarraituaren eta larrialdikoaren erreformarekin

Herritarren beharrak ez dituela betetzen salatu du

Altsasuko Osasun, Ongizate eta Elkartasun Batzordeak Marta Vera osasun kontseilariari jakina- razi dio hark sustatutako osasun erreformarekin ez daudela ados. Bilduk, Geroa Baik, PSNk, Arala- rrek eta IUk adostu zuten erantzun- na batzordean.

Haren buru Unai Hualdek jaki- narazi digunez hiru arrazoiengatik errefusatu dute osasun arloko erreforma. Alde batetik, landa ere- muko herritarren beharrak jasot- zen ez dituelako. Altsasuko Uda- laren iritziz gobernuak ez du bete pasa den urteko otsailaren 13an Par- lamentuak emandako agin- dua. Haren arabera, osasun beha- rren ebaluazioa egin behar zuen profesional, toki entitate eta osa-



Altsasuko Osasun Etxea. ARTXIBOA

sun arloarekin zerikusia zutenen parte hartzearekin. Hain zuzen

gabezia hori ikusi dio udalak Osa- sun Departamentuak prestatuta- ko agiriari: ez da Altsasuko pro- fesionalekin kontsultatu, ezta uda- larekin berarekin ere.

Vera kontseilariaren taldeak prestatu duen agiriarekin ez dator bat Altsasuko Udala, "aitza- kia gisa erabiltzen baita osasun- arreta jarraitu eta larrialdikoa- ren erreforma bat planteatzeko, 2008ko martxoaren 13ko eba- zpenaren berrikuspena da". Garai hartan osasun administrazioak eta sindikatuek landa eskualde- etako osasun arreta jarraitu eta larrialdikoaren inguruko baldin- tzak adostu zituzten. Altsasuko Udalak kontseilariari leporatu dio orain gehiago sindikalaren babesik gabe berrikuspena egin nahi duela.

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauek

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

maríaeugenia
Arrainak
www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsalde zabalik

Lortu deskontuak gure txartelarekin!

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

TXIKIKO
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialleku 2 • ALTSASU

>> Altsasu

Sunsundegiko kaleratzeengatik epaiketak hasi dira

Dozena bat salaketa daude auzibidean eta hiru epaiketak gutxienez hasi dira

Pasa den udaberri zuzendaritza eta langileak dira Sunsundegiko jabeak. Akordioarekin batera 18 aurre-jubilazio edo borondatezko uzteak eta 37 kaleratze izan ziren. Bai ELAk bai LABek diskriminazio sindikala ikusi zuten kaleratze haietan eta epaitegira jo zuten. LABeko lau afiliaturen eta ELAko lauren kasuak daude auzi-bidean. "Beste batzuk lana opatu dute eta ez dute bide hori segitu nahi izan" esan digu Gorka Viergek, Sakanako ELAko arduradunak.

Viergek Sunsundegiko zuzendaritzari hiru gauza eskatu dizkio: salaketa jarri duten langileekin negoziatzea, ez dezala dirua epaiketetan gastatu eta kaleratu zituen langileak berriro hartzeko. "Kaleratze subjektiboak izan ziren. Prestatutako jendea da, polibalentea. Haiek kaleratu eta 9 egunera UGTren gertuko jendea kontratatzen hasi ziren" azaldu du ELAko kideak. Viergek salatu du epaiket



Ostiralean protesta egin zuten, ELA sindikatuak deituta.

tetan UGTk enpresaren alde testifikatu duela. ELAko delegatuek ostiralean kontzentrazioa egin zuten Sunsundegiko kaleratuak berriro hartuak izan daitezkeen eskatzeko.

LAB: "Eskandalua"

LABek "eskandalutzat" jo zuten pasa den urteko kaleratzeak. Orduan esan zuenez, "UGTk lan-tegiam afiliatu gehien izanda ere kaleratutako %90 ez du harekin zerikusirik". Gaizka Uharte

LABeko Sakanako buruak gogoratu du haiek enpresako sindikatu txikiena izanda kaleratuen %50 LABeko afiliatuak zirela. Kaleratzeetan irizpide objektiborik ez zela izan nabarmendu du Uhartek. Kaleratzeen baliogabetzea eskatzeko eta diskriminazio sindikala salatzeke enpresa salatu zuten. LABeko buruak gogoratu du eurek ez zutela akordioa sinatu eta 2012an urte baterako kaleratuak izan zirenak 2013an berri-

ro kaleratu zituztela. Epaiketen inguruan Uhartek azaldu digu epaileak proba bat zuzentzeko eskatu ziela eta horretan ari direla, epaiketek aurrera segitzeko.

Bestalde, UGTtik ukatu egin dute enpresako kontratu berrietan fabore traturik izan denik eta ukatu egin du soilik UGTko gertuko pertsonak kontratatzen ari direnik. Kaleratuen artean ere UGTkoak ere izan zirela adierazi dute sindikatutik.

SAKANA

Langileen aldarrikapenak Maiatzaren Lehenean



Makina bat deialdi daude.

Sindikatuak hainbat mobilizazio deitu dituzte Langileen eguna dela eta. ELAk Gure eskubideen alde, kalera! Antolakuntza eta borroka leloa hautatu du. Bere militanteak Bilboko Jesusen Bihotzatik 12:00etan aterako den manifestazioan parte hartzeraz deitu ditu. LABek Langileok erabaki, Euskal Herriak erabaki dezan leloa aukeratu du eta eskualdeko mobilizazioak egingen ditu. Sakanan Altsasun egingen da manifestazioa. 12:00etan abiatuko da Foru plazatik. 14:30ean herri bazkaria izanen da.

UGT eta CCOO elkarrekin ariko dira langilearen egunean. Iruñeko autobus geltokitik abiatuko den manifestaziora deitu dituzte euren jarraitzaileak. Kalitatezko enplegurik gabe ez dago errekupe-raziorik. Kohesio sozial gehiago demokrazia gehiagorako leloa izanen du 12:00etan abiatuko den manifestazioak. STEE-EILASEk, CNTk, CGTk, Solidarik eta ESKK deialdi bateratua egin dute maiatzaren baterako. Iruñeko San Lorenzotik aterako da manifestazioa eguerdian.

SAKANA

ELA: Langabezia jaitsi izanak ez du suposatzen enplegua sortu denik

Javier Zabaletak, ELAko Ikerketa Bulegoko kideak, Sakanako enpleguaren egoeraren ikerketa egin du. Haren arabera azken urtean Nafarroako Enplegu Zerbitzuan (NEZ) izena eman dutenen kopurua jaitsi bada, bi arrazoiengatik da. Batetik, "lana opatzeko itxaropenik ez duen jendeak eta

prestazioak jasotzeko eskubidea ez dutenek NEZen izena emateari utzi diote". Bestetik, "jende askok Sakanatik kanpo lana opatu du, Gipuzkoan eta Araban".

Zabaletak nabarmendu duenez, azken urtetan lanpostu prekarioak dituztenen artean langabeziak handitzen jarraitzen du: emakume-

ak eta zerbitzuen sektorean lan egiten dutenak. "Horrek erakusten du prekarietatearen aurka borrokatzea langabeziaren kontra borrokatzea dela" esan du ELAko kideak. Aldi berean elkarrizketa soziala, enplegu planak eta Modernaplanamodukoek ez dutela ezertarako balio gaineratu du, "ez dute lan suntsiketa

gelditzen eta prekarietatea gero eta handiagoa da". Nafarroako Gobernuak ezarritako murrizketa politikak salatu zituen Zabaletak. Aldi berean, "gizarte, lan eta fiskalitate politiketan premiazko aldaketak" exijitu zizkion. Baita "gizarteak dituen beharrak asetzera bideratutako industria politika" ere.

LAB: Inasa eta Arfe patronalak itxi ditu

Arferen kasuan zigorrarekin argi geratu dela azaldu du eta Inasaren kasuan zuzendaritza erruduntzeko argudioak badaudela dio

Inasa itxi zutela 7 hilabete pasa

dira. Arfe itxi zenetik 3 urte. Bi enpresen itxieraren errudun zuzendaritzak egin ditu LABek. Arferen kasuan epaitegiak errudun epaia eman zuen zuzendari-



Inasako langileek itxieraren kontra egindako protesta bat.

tzaren kontra eta isuna jarri zion. LABetik adierazi dutenez, "Arferen zuzendaritzaren gestioa izan zen itxieraren arrazoi nagusia". Inasako langile ohiek ere zuzendaritza itxieraren errudun jotzeko bidea hasi dute.

Argudioak

Itxiera baten eta bestearen artean LABek zenbait ezberdintasun ikusten ditu. Inasa eta Arferen arteko beste ezberdintasun bat da, aurrenekoan makinaria enpresatik atera zutela eta hala ez zirela bete hartzeko dunen konkurtsu-

aren helburuak: zordunei ordaintzea eta lanpostuak mantentzea. Salmenta prozesuari zordunek helegiterik ez zioten jarri, tartean Nafarroako Gobernuak.

"Arfeko kasuan errudun epaia lortu bada, enpresa batzordea konkurtsalarekin elkarlanean aritu ginelako da. Langileek ez zuten enpresaren jabearekin akordioarik sinatu, baizik eta hura administratzen zuenarekin". LABek gogora ekarri du Inasako kasuan CCOO, UGTk eta Solidarik sinatutako akordioak baldintzatuz zuela enpresaren bilakaera. "155 lanposturen suntsi-

keta eta enpresaren likidazioa nolako izanen zen onartu zen". Zortzi langile gelditu ziren eta haiendako makineria gehiegi zegoenez, saldu egin zuten. LABek gogoratu zuen, aipatu hiru sindikatuen gainetik langileak izan zirela Inasa berriro irekitzeko borrokaren zama eramane zutenak.

LABek Baikap-eko zuzendaritza Inasaren itxieraren errudun egiteko eta eta beste enpresarik inoiz kudeatu dezaten ekiditeko ahal duten guztia egiteko eskatu die epaileei eta administratzaile konkurtsalari.

GANUZA SUKALDEAK
Sukalderako altzariak

Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak

Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuzas@cocinasganuzas.com
www.cocinasganuzas.com
Etxarriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

SAKANA

Nafarroako Kutxaren desagertutako lanen artean Txuspo Poyoren bat dago

Kontuz elkarreak jakinarazi duenez kutxaren arte-ondare bildumatik 157 obra desagertu dira

Finantza erakundearen arte-ondarearen egungo jabe den Nafarroako Kutxa fundazioak berriki arte-lanen inbentarioa aurkeztu zuen. Kontuz elkarreak atzo 2011n egin-dako azken inbentarioa egin zuen publiko eta bi zerrendak aldera-

tuta 157 artelan falta direla ondorioztatu du elkarreak. Ondare horrekin zer gertatu den argitze-ko eskatu du elkarreak. Desagertutako obren artean Txuspo Poyoren *Mujer en el vacío* argazkia (192x125) dago. 1.200 eurotan eskuratu zuen kutxak.

Artista sakandarren obra gehiago daude Nafarroako

Kutxaren arte-ondaren bilduman. Asun Goikoetxea bakai-kuarraren *Zeruak* serieko teknika mistoko bi pieza, 1.200 eurotan eskuratua. Altsasuko Dora Salazarren *Soliloquio I* eskultura, 6.000 eurotan bereganatu zuena eta Txuspo Poyo altsasuarren izenbururik gabeko argazki bat (210x310).



SAKANA



Gazte Burutakzio topaketaren aurkezpena. Antolatzaileek mila bat pertsona espero dituzte.

Sistemari aurre egiteko gazte prestakuntza topaketak Altsasun

Lan ildoak

>> Desobedientzia: "askatasunaren alde" daudenendako "lege injustuak gainditzea ezinbestekoa da". Eztabaida saioetan jarra horren arriskuez, indargunez eta ahulgunez ariko dira.

>> Desnormalizazio tailerra: "dena normala da; dena izan behar den bezalakoa da... Nola apurtu eguneroko patxada merkea ekimen zuzenen bidez?"

>> Komunikazio gerrila: ohiko komunikazio sistemak askotan balio hegemonikoetara eramaten dituela ohiko gramatika kulturaletatik askatu eta irudimenezko molde berriak asmatzeko taile-

rra. "Mezuaz aparte, euskarri berriak pentsatzea, inpaktua eta sorpresa bilatzea".

>> Sormen tailerra: Ahalduntze ariketa bat proposatu dute, pertsona oro sortzaile garelako aldarrikatze eta barruan gordeta duen irudimena sorkuntza bilakatze.

Kanpo proiektzioa: gazteengana iristeko bitartekoak eta bideak aztertuko dira.

>> Taldeen mikropolitika: gazte antolakundeetan botere harreman zapaltzaileak eta genero zapalketak ekiditea, kidegoaren zaintza lantzea, militantzia eredu integral eta askatzaileak garatzeko ote dagoen aztertuko dute.

Borroka praktiken inguruko prestakuntza teoriko praktikoa jasoko dute parte-hartzaileek

Gaurtik larunbatera arte Gazte Burutakzio topaketak hartuko ditu Altsasun. Ernai eta Aitzina gazte antolakundeek prestatu dituzte. Horretarako honako hausnarketa izan dute abiapuntu: "gazteok gure egunerokotasunean gu geu izateko aukera nola ukatzen zaigun ikusten dugu, gazte, aske eta burujabe izateko aukera. Zapalkuntza horren aurrean ezinbestekoa zaigu ahalduntzea".

Altsasun bilduko diren gazteek sistemari aurre egiteko borroka praktiken inguruko formazio teorikoa eta praktikoa jasotzeko

20 urte

Aberri Egunaren inguruan gazte ezkertiar eta abertzaleen aurreneko bilkura, Gazte Topagunea, 1994an egin zen Etxarri Aranatzen, Jarraik deituta. Bi urtetik behin egin zen eta 2006an, atzera ere, Etxarri Aranatzen egin zen, ilegalizazioak tarteko, gazte mugimenduko hainbat kidek deituta orduan.

aukera izanen dute. "Sinesten dugu gazte mugimenduaren irudimena eta jarduna dela sistemaren kontrako ekintzarik indartsuena eta hori era kolektibo batean lantzeko aukera eskainiko digu

Egitaraua

>> Apirilak 17, osteguna

18:00etan Harrera.

19:00etan Desobedientzia.

21:00etan Bertso zirko mundiala.

22:00etan Kontzertuak: Altxatu, Odolkiak ordainetan eta Marianitoz blai.

>> Apirilak 18, ostirala

8:00etatik 9:30era Gosaria.

9:30etik 13:30era Lantaldeak: sormen tailerra, kanpo proiektzioa, desnormalizazioa, komunikazio gerrila eta taldeen mikro-politikak.

16:00etatik 21:00etara Hitzaldi eta tailerrak: identifikazioa eta identitate faltsuak, eraminta kutxa, mintza eta ekintza, amalurraren defentsa, mundua koloreztatu, trapezio eta oihal tailerra, k pasa makina, photoshop hasiberriendako, batukada, graffitti tailerra, ekonomiara sarrera, antzerkia, botere harremanak, hackergintza, parte hartu nahi dut, hiri-altzaria artea izan daiteke eta eskalada.

22:00etan Kontzertuak: Kasul, Euskabaret eta Xutik.

>> Apirilak 19, larunbata

8:00etatik 9:30era Gosaria.

9:30etik 13:30era Lantaldeak: desnormalizazioa, komunikazio gerrila, sormen tailerra, taldeen mikropolitikak eta kanpo proiektzioa.

16:00etatik 21:00etara Hitzaldi eta tailerrak: ikurrina eta merengea, Euskaldunako bataila, krosmedia, desobedientziaren aurrera, antzerkia-olinpiada, sormen prozesu kolektibo bat, okupazioarako aholkuak, story telling, marketinga markatuz, txantilloi, mundua koloreztatu, joaldunekin poteoa, bidoia eta bizitza ona, bideak irekitzen, bihurri tailerra, zernahi garai, hackergintza, photoshop hasiberriendako, gure buruak zaintzen, genero asimetriak eta magoa.

22:00etatik aurrera bertso gaua: Kolpatu, Zurraia, Tajon prieto y los kuajalotez eta 3 gabe 2.

OHARRA: Goizeko saioetarako aldeztu aurretik izena eman beharra zegoen. Arratsaldeko ekitaldiak irekiak dira.

ekimenak". Lan saioekin batera kultur eskaintza zabala ere prestatu dute.

MAPFRE Zure aseguru etxea

S. Juan, 48 • ALTSASU •
Tel: 948 563 354 • Faxa: 948 562 151
jimazpr@mapfre.com

J.A. Imaz Prim

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak eta bokatak

Aste Santuan
17tik 21era

Karta eta 25 €-ko menu berezia

948 467 876 • Altsasu

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 • Altsasu
948 467 317 • 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com



Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza 23-1 Altsasu • 948 564 275 • argi@guaixe.net

Guaixe
KOMUNIKAZIOA

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en doan
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Etxebizitza

ETXEBIZITZAK SALGAI

Adosatua salgai Uhartek Arakilen . Jantzita.
135.000 €. 615 74 34 90.

Ikastaroak

AES. "Enpresa ingelera II", Arbizun, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; "Ekoizpena eta biltegien kudeaketa: denbora eta kostuen murrizketa", Arbizun, 80 ordu, apirila-ekaina; "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; "ETEei aplikatutako trebatasun pertsonalak", Arbizun, 35 ordu, ekaina; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

UGT. Ofimatika: apirilaren 23tik ekainaren 26ra.

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasun, maiatzak 8-15-22 eta 29, ekainak 5; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak:

izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra - CCOO ikastaroak.
Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

LEHIAKETA

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharrak

Baratza baten bila nabil Lakuntzan. Uztearen truke baratetik jasotako uzta zati bat emanen dizut. Primeran zainduko dut lur eremua. Nire telefonoa 603 83 15 79 da.

Basomutur jatetxean. Hemendik aurrera, atsedeen eguna astelehenetan izanen da.

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrantean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomiko Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu, deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Sukaldaritza - trukea. Informazio gehiago larrezabaldek@inigoaritz.com

3MBk kontu korrantea zabaldu du. Rural Kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811 kontu zenbakian.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38

50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixen txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatriculazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota

JAIOTZAK

- Izan Seoane Perez, apiribilaren 8an Altsasun.
- June Reparaz Pires, apirilaren 8an Arbizun.

HERIOTZAK

- Lucila Diosdado Herrero, apiribilaren 9an Iturmendin.
- Candido Ochoa Galarza, apiribilaren 11n Ziordian.
- Angel Utrilla Vazquez, apiribilaren 11n Altsasun
- Boubeker Khelifi, apiribilaren 12an Iturmendin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garga-gardoa, lekaleak, ozipina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

MENDI TXIRRINDULARITZA

SAKANDARRAK TUTERAN: Patxi Ciak (1:42:5) irabazi zuen Tuterako BTT lasterketa, Rural Kutxa BTT Koparako baliaga-

rria. Mikel Otxoa izurdiagarra 21.a izan zen (2:08:27) eta Mikel Irigoien uhartearra 30.a (1:00:14).

Atletismoa



Sakandarrak 25.Hiru-Herri lasterketan

1033 korrikalari Charkik eta Casaresek irabazitako proban

Sakandarrak 25.Hiru-Herri lasterketan

1. Mostapha Charki	31:46
96. Tomas Guirado	39:10
132. Santi Agirre	40:50
175. Jesus Bengoetxea	41:50
214. Juan Carlos Perez	42:39
331. Adolfo Lopez	44:54
531. Mari Gwen Davies	48:17
584. Ruben Cantero	49:24
599. Saray Garasa	49:44
611. Ion Zubiria	49:57
612. Gurutz Zubiria	49:57
633. Jose Mari Mercero	50:17
756. Haizea Ramirez de Alda	52:49
761. Igone Moreno	52:51
767. Isabel Pozueta	52:59
867. Josi Reparaz	55:15
976. Erkuden Aiala	59:38

Igandean jokatu zen Hiru-Herri atletismo klubak antolatutako 25. Hiru-Herri lasterketa herrikoia. 1033 korrikalari lortu zuten helmugara helteza Hiru-Herriko Mostapha Carriburu zela (31:46). Klub bereko Ana Casares izan zen lehen emakumea (56:54). Makina bat sakandarrek hartu zuten parte proban eta Tomas Guirado altsasuarra izan zen lehena, helmugara 96.a iritsi eta gero (39:10).



Ivan Gonzalez 11.a Leitzako krosean

El Hassan Oubaddi izan zen azkarrena larunbatean jokaturako Leitzako herri krosean (10 km). 183 kirolari iritsi ziren helmugara, tartean 4 sakandar. Ivan Gonzalez 11.a izan zen (37:10), Borja Gonzalez 36.a (40:35), Xabier Aierdi 47.a (42:30) eta Joxeja Maiza 48.a (42:46).

Pilota

Gaur hasiko da Irurtzungo 22. Pilota Txapelketa

GAUR ETA OSTIRALEAN SENIORREN PARTIDAK JOKATUKO DIRA ETA LARUNBATEAN ETA ASTELEHENEAN BENJAMINEN MAILAKOAK



2013 urteko Irurtzungo Pilota Txapelketako finalistak.

Gaur, apiribilaren 17an hasiko da Irurtzungo 22. Pilota Txapelketa-Lacturale Saria. Txapelketa benjaminetatik hasita senior mailara arteko kategorietan jokatu-

da, eta 100 pilotari pasa lehiatuko dira guztira. Finala, ohikoa denez, Irurtzungo Trinitateko festetan jokatu da, ekainaren 14an.



Finalerako txartela jokoan


XALA-ZUBIETA ETA IRUJO-BARRIOLAREN ARTEKO FINALERDIAK ERABAKIKO DU NOR PASAKO DEN BINAKAKO FINALERA. FINAL HANDIAN OLAIZOLA ETA ARETXABALETAKO ZAIN DITUZTE

Binakako Txapelketan Aimar Olaizolaren eta Andoni Aretxabalearen kontra finala nork jokatu duen dago erabakitzeko. Xala-Zubietaketa Irujo-Barriolak astelehen arratsaldean Bilboko Bizkaia pilotalekuan jokatu duten partida irabazten duen bikoak lortuko du finalerako txartel preziatua.

Partida aurreko igandean jokatzea zen, baina Irujok atzerapena eskatu zuen, eskuko minagatik, eta astelehenean, jai eguna, jokatu da lehia. Hil ala biziko partida espero da.

Aurrekariak

Binakako hasierako ligaxkan elkarren kontra aritutako bi partidetan, lehenengoan 22-12 irabazi zuten



Barriola, Xala, Zubietta eta Irujo, hasierako ligaxkako pilota aukeraketa batean.

Irujok eta Barriolak eta bigarrenen 22-13 gailendu ziren Xala eta Zubietta. Hortaz, lehia estua espero da. Baina finalerdietan, Xalak eta Zubietak finalerdiko azkenekopar-

Irurtzungo 22. Pilota Txapelketa

Apiribilak 17, osteguna:

Seniorrak, 10:30ean:

Ugalde-Ugalde (Oiarpe) / Astea-suinzarra-Agirre (Zaramaga) Vidan-Echegoi (Oberena) / Urmeneta-Nubla (Añorga) Mayans-Larraya (Oberena) / Iriarte-Landibar (Buruzgain)

Seniorrak, 17:30ean:

Urkizu-Altuna (Hernani) / Astiz-Iraitzo (Huarte) Lopez-Bergera (Irurtzungo) / Jaunarena-Andueza (Erreka) Maia-Goñi (Erreka) / Olano-Azanza (Zugarralde)

Apiribilak 18, ostirala:

Seniorrak, 10:30ean:

Murgiondo-Kintana (Aldabide) / Apaolaza-Alberdi (Urretxu) Zigarroa-Vital (Titin) / Zuasti-Pina (Paz Ziganda) Huarte-Arano (Buruzgain) / Rekalde-Telletxea (Paz Ziganda)

Apiribilak 19, larunbata:

Benjaminak, 10:30ean:

Gainza-Gorostieta (Irurtzungo) / Gasco-Arraiza (Lakuntza)

Seniorrak, jarraian:

Jauregi-Aranburu (Erreterria) / Eskudero anaiak (Andoain) Loidi-Errazkin (Behar Zana) / Plaza-Lana (San Migel) Lizaso-Erreka (Behar Zana) / Apezetxea - Santxex (Zazpi iturri)

Apiribilak 21, astelehena:

Benjaminak, 10:00etan:

Imaz-Lakuntza (Aldabide) / Beloki-Huarte (Huarte) Dominguez-Izagirre (Urretxu) / Andueza-Agesta (Erreka) Iribarria-Zubizarreta (Lapke) / Goikoetxea-Arrillaga (Renteria) Albarrazin-Erdozia (Gure Pilota) / Balerdi-Otxotorena (San Migel) Urruzola-Oliden (Añorga) / Maiza-Rodriguez (Paz Ziganda) Migeltorena-Rivas (Lagunak) / Lertxundi-Mendez (Behar Zana) Zulaika-Soto (Buruzgain) / Barber-Cardenas (Zugarralde)

Finalerdia

Irujo-Barriola / Xala-Zubietta (apiribilaren 21ean, 17:00etan, Bilbon. ETB1)

Material aukeraketa gaur Bilbon

Gaur, Ostegun Santuan, goizeko 11:30ean egiten dute material aukeraketa Xala-Zubietak eta Irujo-Barriolak, Bilboko Bizkaia pilotalekuan.

nagusitasun osoz irabazi zieten Urrutikoetxeari eta Beroizi. Irujoren ezker eskuak nola erantzun duen da airean dagoen beste kontu bat, baina Iberokoasasoian egongo dela aurreikusten da eta beraiek izango dira faboritoak. Ea atzelari etxarriarrak frontoian bere tokia egiten duen eta berak eta Xalak finalen egotea lortzen duten.

sorgiñak taberna

LAKUNTZA
948 576 357

NEREA
ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA.
Ermifieta Kalea 4. ZBK. (Atzekalde) LAKUNTZA. TFN:948 576 331

Tel.: 948 562 829
faxa: 948 563 002

Unamuno
ALTSASU

Igoa
arraindegia

948 460 111 · Arkuetabide kalea · Etxarri Arantz

Txirrindularitza

Kadeteen Burunda Trofeoa jokoan

Apirilaren 26an, 17:00etan, Altsasun

Burunda Txirrindularitza Klubak antolatuta, apirilaren 26an arratsaldeko bostetan abiatuko da, Altsasuko Zumalakarregi plazatik, kadeteen mailako Burunda Txirrindularitza Kluba Trofeoa (50 km).

Lehenik eta behin Etxarri Aranzako errotondaraino abiatuko dira, han buelta hartu eta Ziordiraino jotzeko. Ziordian buelta hartu, Olaztin sartu, eta Altamira igo eta jaitsi egingo dute, segidan Etxarri Aranzatzeraino jotzeko. Bertako errotondan buelta hartuko dute eta Altsasuko helmugaraino abiatuko dira.

Jubenilen Altsasuko Erramu Saria



Igandean Sociedad Deportiva Altsasuak antolatutako juniorren 55. Erramu Trofeoa jokatu zen igandean. Argazkian, lasterketako podiuma, SDAko presidente Pablo Lopez Colina eta Pablo Urtasun txirrindularia daudela.

Automobilismoa

Lur gaineko rallyra

Iban Lopez de Goikoetxea eta Aitor Fernandez I. RACVN Galp Energy Kopan lehiatuko dira

Los Arcoseko zirkuituan aurkeztu berri dute I. RACVN Galp Energia Kopa rallya. Lasterketa honek 5 proba izanen ditu -Andosillan, Ultzaman, Arronitzen, Zeberion eta Ausejon- eta guztiak lur gaineko eremutan jokatu dira. Gztiak auto modelo berarekin hartuko dute parte, Ford Focus 1,6.

Sakana Motorsport taldeko Iban Lopez de Goikoetxea pilotua eta Aitor Fernandez kopilotua aipatu Kopan ariko dira. Erronka berri honetarako Sakanako eta inguruetak babesleak izan dituzte: Mutua General Seguros (MGS), Talleres Azkargorta, Ford Gabirondo, Garaje Dulantzi, Fendt, Alfa 5, Egurdiain, Eulate, Olaztiko Udala eta Sakana Motorsport.



Lopez eta Fernandezeko autoa.

Lehenengoa Andosillan

Lehendabiziko proba apirilaren 27an jokatu da, II. Andosillako Lur gaineko Hiria Saria. Prestatutako trazatua hiru aldiz osatu behar du pilotuek. 11:00etan proba eremuaren kontrola egingo da, 12:00etan probaren lehendabiziko pasaera, 13:00etan bigarrena eta 14:00etan hirugarrena.

>



20 auto Irurtzungo slalomean

Larunbatean Irurtzunen antolatutako IV. Slaloma orain arteko arrakastatsuen izan dela diote antolatzaleek. Jende andana hurbildu zen kotxeen abenturaz gozatzerareta parte hartzaileak ere sekula baino gehiago izan ziren, 20 pilotu.

Zirkuitua ahalik eta azkarren egin eta ahalik eta konogutxien ukitzea. Horixe zen gakoa. Igarki Nui (BMW 325) sari berezia eman zioten, zirkuitua modu ikusgarriean egiteagatik. Maniobra ia ezinezkoak eta trebezia eraku-

tsi zituen. Bestetik, Carlos Mariñelarenak (Ford Sierra) eskuratu zuen sari nagusia, zirkuitua azkarren amaitu zuelako.

Opari berezia Mariñelarenari
Slaloma ikustera hurbildu zen motor istripu larriaz osatzen ari den 21 urteko pilotu irurtzundarra, eta opari berezia eman zioten lagunek, erakutsi duen indarragatik eta gertatutakoaren ondoren herritarren babes adierazteagatik.

Herri kirolak

Hiru txapela Sakanara

Sokatiran sakandarrak jaun eta jabe



Sokatiran jokatuak bi txapelak Sakanara etorri dira. Iñigo Aritzak jantzi du hurren mailako (480 kilo) txapela (24,5 puntu). Podiuma sakandarrek osatu dute, 2.a Putterri (17,5 puntu) eta 3.a Andra Mari (15 puntu) izan baitira. Kadeteetan, aldiz, Andra Mari jantzi zuen txapela (13,5 puntu), Ultzama (11,5 puntu) eta Berriozarren (5 puntu) aurretik.

Igandean Nafarroako Herri Kirol Jokotako 5. eta azken jardunaldia jokatu zen Igantzin. Sakanatik, Iñigo Aritz eta Andra Mari ikastolatetik sortutako taldeak lehiatu dira txapelketan. Maila bikaina eman dute sakandarrek, jokoan zeuden 5 txapeletatik 3 etorri baitira Sakanara. Zorionak guztiei.

Proba konbinatua

Kimuen mailako proba konbinatuko finalean Iñigo Aritz A izan

zen txapelduna (6:54), Andra Mari-ekin lehia estua izan eta Etxarriko ikastolari 4 segundo atera eta gero (6:58). Iñigo Aritz B 3.a sailkatu zen (7:00) eta Irisarri 4.a (7:02). Hurren mailako finalean Araxes izan zen azkarrena (8:48). 2.a Basaburua sailkatu zen (9:10), 3.a Putterri (9:34) eta 4.a Iñigo Aritz (10:34). Eta kadeteetan Basaburuak jantzi zuen txapela (20 puntu). Andra Mari txapeldunordea izan zen (11 puntu).

Areto futbola

Futsalsakana Kopak utzi duena

Kopako 2. jardunaldia eta gero, Amultzoan Leones del Atlas 6 puntu ditu, Racing San Migelek eta Etxarriko Gaztetxiek hiruna puntu eta Arbizuko jubentak eta Iturmendik ez dute punturik. B multzoan, Auzomotojorik, Biltokik, Arbizuketa Aralar Mendi 69k hiruna puntu dituzte eta Bunkerrek, aldiz, ez du punturik.

Emaitzak (2. jardunaldia)

A MULTZOA:
Etxarriko gaztetxe 6 - Iturmendi 3
Leones del Atlas 9 - Arbizu gazteak 4
Atsedena: Racing San Migel
B MULTZOA:
Auzomotojorik 5 - Biltoki 3
Bunker 6 - Aralar Mendi 69 - Biltoki
Atsedena: Arbizu

Contador San Migelgo igoera ikuskatzen

Euskal Herriko Itzulia irabazi eta gero, Alberto Contador igandean Uharte Arakilgo pista ikuskatzen aritu zen, San Migelen despidituko den Vueltako etapa zuzenean ezagutzeko.

ERBITI PARIS-ROUBAIXEN

Niki Terpstrak irabazi zuen galtzadarrien proba gogorra (275 km). Imanol Erbiti 61.a izan zen, 7:06ra.

BILBAOREN GARAIPENA

Amorebietako 60. Udaberriko Klasiako Rural Kutxako Pello Bilbaok irabazi zuen. Bi garaipen ditu Sakanatik sortutako taldeak. Bestalde, taldeko Omar Frailek E.H.-ko Itzuliko tarteko helmugun sailkapena irabazi zuen.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

34. JARDUNALDIA

CIRBONERO 2 - LAGUN ARTEA 2
Partida entrenigarrian, Cirbonero aurreratu zen falta bat jaurtiki eta bero. Bigarren zatian Redondok berdintzea lortu zuen, baina berehala 2-1 aurreratu zen Cirbonero. 80. minutuan, eta defentsaren akats bat aprobetxatuta, Unai Bakakoak bina berdintzea lortu zuen. Jaitsiera postuak 2 puntura ditu Lagun Arteak

Sailkapena >>

1. San Juan 76 p
16. Lagun Artea 35 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - ARTAJONES
(Gaur, ostegun, 17:00etan, Lakuntzan)
MUTILBERA - LAGUN ARTEA
(Apirilaren 26an)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

28. JARDUNALDIA

BERRIOZAR 3 - LAGUN ARTEA B 3
ALTSASU 2 - SAN JORGE 3
BETI KOZKOR 3 - ETXARRI ARANATZ 0
Asteburu kaxkarra izan dute gure taldeek. Berriozarrek eta Lagun Artea B-k hiruna berdindu zuten emozioz betetako partidaren. Lagun Artea B 2-3 aurreratu egon zen, baina Berriozarrek berdintzea lortu zuen. Altsasuk partida guztian egindako lana azkeneko 10 minutuetan alferrik galdu zuen. Partida oso lehiatua, 2-0 aurreratu zen Altsasu, baina partida bukaeran 3 gol jarraitu sartu zituen San Jorgek. Bukatzeko, Beti Kozkor liderrak liga irabaztea eta hurrengo denboraldian preferente mailara igotzea lortu du, Etxarri Aranatz 3-0 irabazi eta gero.

Sailkapena >>

1. Beti Kozkor 63 p
4. Lagun Artea B 46 p
9. Altsasu 38 p
24. Etxarri Aranatz 58 p

Asteburuko jardunaldia

VALLE DE EGÜES - LAGUN ARTEA B
(Apirilaren 26an)
UNIVERSIDAD DE NAVARRA - ALTSASU
(Apirilaren 26an Iruñean)
ETXARRI ARANATZ - DONEZTEBE
(Apirilaren 26an Etxarri Aranatz)

Areto futbola



Magnaren eta Riosen derbya Tuteran

Marfil Santa Coloma arerio konplikatuen kontra hiruna berdindu zuen Magna Nafarroa Xotak larunbatean. "Taldea ongi dabil, baina kontrako atean gehiago asmatzea falta zaigu" nabarmendu zuen teknikariak.

LARUNBATEAN DERBYA

Lehen mailako liga despiditzeko bi jardunaldi falta dira. Egun, Inter Movistar da liderra (73 puntu). Magna 7.a da (38 puntu), 6.a den Montesinos Jumillarekin puntutara berdinduta. Larunbatean, hilak 19, Magnak 39 punturekin sailkapenean 5.a den Tuterako Rios Renovables taldearen kontrajokatuko du Tuteran. 5. postu dago jokoan, soilik puntu bateko alde baidute bi talde nafarrek. Hortaz, partida lehiatu eta ikusgarria espero da. Apirilaren 25ean ligako azken jardunaldia jokatu da eta Peñiscola izan du aurkari Magnak, 21:00etan, Anaitasuna pabilioian.

Mendi lasterketak



Beñat Katarain helmugara iristen.

26 sakandar Berako maratoi erdian

Ariznabarretak irabazi zuen proban Joxeja Maiza izan zen lehen sakandarra

Sakandarrak Berako maratoi erdian (21 km)

1. Oier Ariznabarreta	1:37:30
25. Jose Javier Maiza	1:56:43
27. Jose Luis Beraza	1:56:45
28. Aritz Munarriz	1:57:48
29. Evaristo Noveleta	1:58:10
38. Fidel Jimenez	1:59:20
47. Beñat Katarain	2:00:52
52. Mikel Berastegi	2:01:17
59. Aritz Ganboa	2:02:30
63. Juanjo Goikoetxea	2:03:02
67. Adur Maiza	2:03:52
80. Alatz Agirre	2:06:19
102. Carlos Gerendiain	2:07:32
140. Mikel Sasiain	2:11:38
152. Mikel Satrustegi	2:13:20
162. Mikel Perez de Eulate	2:14:04
178. Juantxo Arregi	2:15:33
209. Iraitz Senar	2:17:43
262. Mikel Iriarte	2:22:06
289. Javier Noveleta	2:24:19
321. Javier Gonzalo	2:28:08
325. Ivan Verdugo	2:28:28
333. Jose Javier Beregaña	2:29:00
353. Maite Beregaña	2:30:41
371. Josema Leitza	2:32:40
429. Josetxo Albizu	2:41:17
460. Jose Angel Maiza	2:45:49

Sakandarrek geroz eta zaletasun handiagoa diete mendi lasterketei. Igandean Berako X. mendi maratoi erdia jokatu zen (21 km), proba arrakastatsua, 527 korrikalari iritsi baitziren helmugara. Horien artean 26 sakandar lehiatu ziren.

Oier Ariznabarretak (1:37:30) sorpresa eman zuen eta azken edizioetan garaile izan den Didier Zagoren (1:41:09) aurretik sailkatu zen, 2 minutu eta erdi luze atereaz. Emakumezkoetan Laura Sola (2:00:10) izan zen txapelduna.

Sakandarren artean Joxeja Maiza etxarriarra izan zen lehena, helmugan 25. postuan iritsi eta gero (1:56:43). Maite Beregaña uharterra 9.a sailkatu zen emakumezko seniorren mailan, 353. postuan helmugaratu eta gero (2:30:41).

ESTIBALIZKO IGOERA

Igandean 920 korrikalari iritsi ziren 29. Estibalizko Igoerako helmugara (15,5 km), Marc Hurtado buru zela (50:24). Patxi Cano altsasuarra 39.a izan zen (59:58) eta Jose Ramon Ramirez 112.a (1:04:24).

Mendia

25 urte ospatzeko, kontrako noranzkoan

SAKANAKO IBILALDI HANDIAREN 25. EDIZIOA OSPATZEKO, BERRIKUNTZA GISA BUKAERATIK HASIERARA EGINEN DUTE BIDEA. APIRILAREN 26AN IZANEN DA, GOIZEKO 6:30EAN ABIATUTA

Sakanako Ibilaldi Handiak oihartzun handia hartu du, erakargarria bilakatzen duten hainbat elementu uztartzen dituelako. Euskal Herriko erdigune geografikotik pasatzen da eta Nafarroako ibilbiderik luzeena, gogorrena eta zaharrena da. Nafarroako eta Euskal Herriko Mendi Ibilbide Luzeen Zirkuituan sartua dago.

XXV. edizioa izanen du, aurten, Iratxo mendi taldeak antolatutako martxak. Berezitasunen artean bat da nabarmenena: atzekoz aurrera egiten dutela ibilbidea. Trinitate-rantz abiatuko dira lehenbizi Txurregira joan ordez. Horrek zer dakar? Bigarren zatia are gogorragoa izango dela.

Bi ibilbide: 52,5 km eta 24,4 km

Bi ibilbide izanen dira. Lehenak, luzeenak, 52,5 kilometro luze ditu eta 3.100 metro arteko maldak. 6:30ean aterako dira mendizaleak. Hasieran Ergako Trinitatera igo beharko dira mendizaleak. Segidan Latasara jaitsiko dira. Bertan Goldaratzeko bide zaharra hartuko dute, Larrazpil igo, Madotz jaitsi, eta Atatik barna Aralarko San Migelera ino abiatzeko. Uhartea Arakilerajaitsi, eta Beriaingo San Donatoko igoera gogorrari ekin beharko diote, Txurregiraino iritsi eta handik Irurtzuneraino jaisteko.

Bigarren motzagoa da. 24,4 kilometro izanen ditu eta 1.400 metroko desnibela. 7:30ean aterata, hasie-

50 boluntariorik gora



Ibilaldi handiaren egunean 50 lagun baino gehiago ariko dira lanean. Bi ibilbideetan horniketarako guneak izanen dira eta Irurtzungo kiroldegian dutxarako aukera zein masajak jasotzeko aukera ere izanen dute. Edozein ibilbide bukatzen duten guztiei diploma eta oparitxo bana emanen zaie eta gainera mendiko materiala zozketatuko da. Babesle ugari laguntza ere beharrezkoa da. Irurtzungo udala, Nafarroako Gobernua, Euskal mendizaleen federazioa, Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundea, Kot, Sur-ya, Kaiku, Lacturale, Mendi Kirolak eta Graficas Sakana ari dira horretan. Aurten, berrikuntza izan da Rural Kutxa ere laguntzaile delako. Komunikabideen artean, babesa agertu diote ibilaldiari: Berriak, Guaixek eta Belexek eta Diario de Noticiasek.

ran ibilbide nagusiko ibilbide bera egindutemendizaleak: Ergako Trinitatea igo, Latasatik jaitsi, Goldaratzeko bide zaharretik Larrazpilera igo eta Madotzetik jaitsi. Handik Itxasperriko Santiagokermitara joko dute, usotegira igo ondoren Irurtzuneraino iristeko. Ibilbide handia egiteko 10 ordu inguru behar izaten dira, bigarrena, ordea, 6 orduren bueltan egin daiteke.

iratxoelkartea.com

Probaren informazio guztia, ibilbidearen mapak eta izena ematea.

Izena emateko

Aurretik izena emateko epea apirilaren 23an despedituko da (iratxoelkartea.com webgunean). Egunean bertan ere eman daiteke.

Duatloia

Nafarroako txapeldunordeak

SAKANA TRIATLOI TALDEKO BENJUMEAK, GARCIA DE EULATEK, FLORESEK ETA GOMEZEK EGUESIBARKO DUATLOIKO ELITE MAILAKO TALDEKAKO ERLOJUPEKOA IRABAZI ZUTEN



Larunbatean 15. Eguesibarko Duatloia jokatu zen, hainbat kategoriatan. Sakana Triatloi Taldeko Felix Benjumeak, Sergio Garcia de Eulatek, Igor Floresek eta Francisco Javier "Pitxi" Gomezek taldea osatu zuten eta elite mailako taldekako erlojupekoan lehiatu ziren. 5 km korrikan, 21 km txirrindulan eta 2,5 km korrikan osa-

tu behar izan zituzten.

Irabazleak Saltoki Trikideak taldeko Egoitz Zabala, Pablo Arrastia, Raul Amatriain eta Martin Iraizoz izan ziren (1:01:30). Beraiek izan ziren Nafarroako txapeldunak. Sakana Triatloi Taldeko laukoteak primerako lana egin zuen eta bigarrenak izan ziren sakandarrak, 35 segundora (1:02:05). Nafa-

rrako txapeldunordeak dira eta zorionik beroenak opa dizkiegu.

Maiza Azkoitian

Larunbatean Azkoitiko XV. Duatloia jokatu zen (10km-34km-4,5km). Julen Larruceak (1:39:06) eta Ibone Sanchezek (1:57:19) irabazi zuten. Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza 49.a sailkatu zen (1:48:14).



Nonerabili

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI ARANATZ

Dendako produktuetan % 5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI ARANATZ

2X1 progresiboetan.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU

Lehenengo matrikula doan.

GOROSTI

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan % 10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

LA CIGÜEÑA

ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

IZARA

ALTSASU

%10eko deskontua etxeko jantzi eta osagarrietan eta % 5eko deskontua gortina eta enkarguetan (eskaintza ez metagarria).

TXIKITXO

ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabilteko.

NAMASTE YOGA

ALTSASU

www.namastecentro.es-en galdetu eskaintzen berri.

TIPI TAPA OINETAKOAK

ALTSASU

60 €ko erosketetatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

VIZU ILEAPAINDEGIA

ITURMENDI

30 €ko gastuarekin, %10eko deskontua.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai



SARDINIAKO MAMUTZONESAK IRURTZUNEN: Orritz dantza taldeak 25 urte beteko dituela eta urteurren ekitaldien barruan, igande arratsaldean Sardiniako Samugheoko mamutzoneen bisita hartu

zuten. Ahuntz adarrez eta larruz jantzitako pertsoniak dira mamutzoneak gorputzaren bueltan hamarnaka fale txiki eta handi dituztenak. Kalejiran faleen soinuk erritmikoki entzunarazi zituzten.

Irakurri, gozatu eta oparitu

Zortzigarren aldiz abian jarriko dute Irakurri, Gozatu, Oparitu ekimena. Egitasmo horrek sakandarrak euskarazko liburuak irakurtzera animatu nahi ditu, irakurtzearen alde atsegin eta gozagarria azpimarratuz. Euskarazko elkarteek, liburutegi publikoek eta liburu dendek elkarrekin, Sakanako Mankomunitatearen babesarekin, irakurzaletasuna sustatu asmoz abian jarriko dute

egitasmoa beste behin. Liburuaren Nazioarteko Egunean, apirilak 23, abiatu eta garagarrilaren 30era arte luzatuko da Euskal Herriko 40 herri baino gehiagotan.

Irakurri ongi pasatzeko modua aurkitu

Egitasmoaren izenak berak adierazten duen moduan, irakurri gozatzeko aukera izan daitekeela erakustea bilatzen du ekimenak. Eta era berean, irakurzaletasun hori gainerako herritarrei zabal-



tzeko, oparitzeko aukera ere bai.

Lehenengo pausoa irakurtzea da; euskaraz irakurtzea alegia. Horretarako, herriko liburutegira joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu ahal izango da. Bigarren pausoa liburu liburutegira bueltatu, eta fitxa bat

bete beharko da: zein izan den irakurritako liburu eta zein iritzi dugun adierazteko. Fitxa hori bete, liburutegiko arduradunak erosteko-txekea emango dio parte hartzaileari, Sakanako edozein liburu dendatan erabiltzeko. Azken pausua, liburu oparitzea izanen da: lagun bati, senide bati, edo norbere buruari. Liburutegian jasotako txartelarekin, euskarazko beste edozein liburu erostetan %25eko beherapena izango da, %50 Sakanako euskalgintzako talde bateko kidea edo mintzakidea izanez gero.

Parte hartzen duten liburu dendak

Irurtzungo Martxueta, Arbuzuko Beriain, Etxarri Aranazko Ametsa eta Kaxeta eta Altsasuko Liburunda eta Arkatz.

Parte hartzen duten liburutegiak

Irurtzungo, Lakuntzako, Arbuzuko, Urdiaingo, Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordikoak.

Parte hartzen duten euskalgintzako taldeak

Aizpea, Kima, Bierrik, EHE, AEK (Mintzakide).

Sakandarrak bigarren Saharari kantari lehiaketan

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren Arabako lagunen elkarteak pasa den urtean estreinako antolatu zuen Saharari Kantari kantu lehiaketa. Pello Reparazek irabazi zuen orduan. Aurten, berriz, lehiaketara aurkeztutako 17 proposamenen artean epaimahaiarendako onena Iker Laurobaren *Sahara* abestia izan da. Epailak bigarren saria eman diote *Harea eta itsasoa* kantuari. Haren sorkuntzan Lur Larraza eta Luis Kintana etxarriarrek parte hartu dute, Izara Petik taldea osatuz. Eta azken hori bezala Vendettako kide diren Ruben Anton eta Enrique Rubinos ere aritu dira sorkuntzan.

Lehiaketaren lana eta arrakasta ospatzeko maiatzaren 24an Gasteizko Jimmy Jazz aretoan kontzertua izanen da. Lehiaketako irabazleaz aparte, Vendetta taldeak joko du.

Ipuin bakoitza errealitatearen argazki bat da

Narrazio eta ipuin laburrez osatutako liburua kaleratu du Alfredo Alvaro Igoak

91 orrialdetan egunerokotasunaren hainbat istorio txiki jasotako *Potroak odoletan* liburuaren Alfredo Alvaro Igoak; eguneroko lanak uzten ez dion askatasunez idatzi ditu Guaixeko erredaktoreak, umorea, irudimena eta gogoeta uztartuz, adjektiboak nahi izan dituen moduan konbinatuz.

Egoera batekin pixka bat nekaztuta egoteak bultzatu zuen idazte-

ra: gizon indartsuaren, gogorren eta handi-mandiren estereotipoaren irudiarekin hautsi nahiak. "Gizonezko batzuentzat "potroak" dira arrazoibide guztirako. Liburuan, ordea, gizonak ahul agertzen ziren egoerak islatu nahi izan ditut. Errealitateko mila gertakarietatik abiatuta ideia hori landu nahi izan dut" azaldu digu egileak. Baita emaitza onartu ere, XXI. mendeko gizonaren irudi errealagoa emanez.

Idatzi guztiak dira laburrak, batzuk esaldi bakarrekoak, eta

luzeenak bi orrialdekoak. Ipuinaren teknika erabili du, baita bertsolariena ere bai, haietako askoren akaberan gatzeta piperra jarri edo bukaerako esaldian trama argituz.

Web orria eta irudiak ere

Letraz aparte irudiz ere hornitu nahi izan du liburua. Horretarako Jose Mari Morcillo, Morkotsen laguntza izan du. Berak ilustratu ditu sei narrazio. Liburuaren azala, berriz, Jabi Bergara, Trapero-ren eskultura baten argaz-

ki indartsu batekin osatu du.

Ander Goñiren laguntzarekin web orria osatu du. Egileak jakinarazi digunez bi astetik behin edo liburu narrazio bat igoko du web orrira. Irakurleek iruzkinak egin ahal izanen dituzte.

www.urlia.eu

Liburu, ePUB edo PDF bertsioetan aipatu web orrian eskuratu dezakegu, ez baitago paperezko bertsiorik. Bide bera erabili dezake interesatuak bere diru ekarpenak egiteko. Guztiak, zuzenean, Bierrik fundazioak jasoko ditu.



bazterretik

Andoni Igoa Arkitektoa

Santiago Calatrava

Ziur aski jende gehienak entzungo zuen noizbait Santiago Calatravaren izena. Nahiz eta arkitektura munduan oso adituak ez izan telebista nahiz egunkarietan noiznahi agertzen den arkitekto polemikoa da. Calatrava Valentzian jaiotakoa da eta munduko arkitekto ezagunenetakoa da. Munduan zehar hainbat eraikin egin ditu azken urteotan eta onartu beharra daukat egin dituen eraikuntza gehienak ikusgarriak direla. Bere obrak herri iden-

titate bilakatu ohi dira.

Hala ere, ez nuke esango arkitekto hau bere obren ikusgarritasunengatik soilik egin dela famatua. Tamalez akats handiekin egindako eraikinak baitira, eta akats hauek denborarekin azaleratu dira, milioi asko kostatu diren eraikina hondatuz.

Arkitekto honen diseinuen ezaggarriak asko dira baina eraikin gehienetan zer edo zer errepikatzen du bere sinadura erakutsiz. Eraikin gehienak kolore zurikoak dira eta egitura ikusgarri osaturik dau-

de animalia itxurak hartuz. Nire uestean teknika ia ezinezkoak ibiltzea gustatzen zaizkio eta ezinezkotasun hau limitera eramatea da bere helburua.

Obragarrantzitsuenak izendatuko ditut: Valentziako arte eta zientzien hiria, Atenaseko olimpiadetako estadioak, hain polemikoa den Veneziako zubi bat, Suedian eraikitako "turning torso" etxebizitzak...

Euskal Herrira ere ailegatu dira Calatravaren eraikinak, esaterako, uso itxura duen Loiuako aireportua, Ondarruko zubi zuria eta Bilboko



beste zubi zuri peatonal bat. Aurreko batean Arabako Laguardian izan nintzen berak eraikitako bodega batean. Honek ere Calatravaren sinadura duen egurrez egin-

dako eraikina da eta bere eraikin gehienak bezala benetan ikusgarria dela esango nuke, baina bakoitzen iritzian utziko dut eraikin hauen edertasuna.

Altsasuko liburutegiak Liburuaren Egunarekin batera ekimenak antolatu ditu

Liburuaren Nazioarteko Eguna apirilaren 23an izanen da. Eguna iritsi aurretik eta ondoren Altsasuko Herri Liburutegiak ekimen ugari antolatu ditu, liburuaren beraren garrantzia islatzeko asmoz. Liburuaren astea, beraz, apirilaren 22tik 25era egingen dute.

Hasteko, erakusketa batean parte hartzeko aukera eskaini du liburutegiak. Egunerokoan norberaren etxean zein leku hartzen duen liburuak edo irakurzaletasunak islatzen duen argazki bat bidaltzeko proposamena egin zuen. Deialdiari erantzundietenen irudiak ikusgai daude Iortia kultur guneko sarreran.

Herritar guztiei bideratutako ekimenak iragarri ditu Altsasuko liburutegiak. Haurrei bereziki zuzendutako hitzordu batekin ekinen diote liburuaren asteari, Toti Martinez de Lezea izanen baita *Nur* liburuaren inguruan solasean haurrekin. Joseba Salegi zuzendariaren *La teclara* gidoiaren inguruan gidoi-foruma egingen da eta haren *Ione, sube al cielo* filma ikusteko aukera izanen da. Zuzendariaz aparte, Martxelo Rubio, Anabel Arraiza eta Javier Bustamante aktoreak emandian izanen dira. Ipuin kontalariak itxiko du egitaraua.

Egitaraua

Apirilak 22, asteartea

17:30ean Toti Martinez de Lezea haurrekin izanen da *Nur* liburuaz mintzatzen.

Apirilak 23, asteazkena

19:00etan Joseba Salegiren *La tecla rota* hizpide gidoi-forumean.

Apirilak 24, osteguna

19:00etan *Ione, sube al cielo* filma.

Apirilak 25, ostirala

19:00etan Izaskun Mujika ipuin kontalaria.

Magic Hop magia ikuskizun bat baino gehiago

Apirilaren 26an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Magia eta hip-hoparen mugimenduak uztartzen ditu Magic Hop ikuskizunak. Show dance-aren erritmo modernoak ere izanen dira oholtza gainean. Pedro III. a ilusionistak, dantza talde handi batekin batera, egungo garaiko show harrigarria eskainiko du Iortia kultur gunean.

Dantzak, jolasak, agerpen eta desagertzeak... magia existitzen dela frogatuko dute. Ahoa bete hortz gelditzeko moduko ikuskizunada. Quiero Teatrok eta Fundación Teatro Gayarrek elkarlanean eginga.

Irurtzunek eta Sakanak hartuko dute Nafarroako Dantzari Eguna

Garagarrilaren 14an izanen da eta Nafarroa Garaiko eta Behereko 35 talde etorriko dira

Orritz dantza taldeak aurtengo 25 urte betetzen dituela eta dantzan ospatu nahi du urteurrena. Horregatik, Nafarroako Dantzari Egunaren antolakuntza bere gain hartu du. Lantalde bat lastailatik ari da Nafarroako Dantzarien Biltzarrekin

batera antolaketa lanean.

Trinitate festekin batera, garagarrilaren 14an izanen da ospakizuna eta Irurtzundik Sakana gutzira zabalduko da. Dagoeneko Sakanako bost udalek baiezkota eman diote Orritzen proposamenari eta euren herrietan dantza emanaldi bana hartuko dute, 16:00etatik aurrera. Udal gehiagobatuko zaizkien zain daude. Aldi berean, Sakanako herrietan ber-



tako dantzarien saioak, baita kintoenak ere izanen direla aurreratu digute Orritzetik.

Garagarrilaren 14an 19:00etan izanen da ekitaldi nagusia Irurtzunen. Kiki Bordatxoren musika

egonen da plazan eta ondoren guztiak afaltzera elkartuko dira. 700 dantzari espero dira eta 150 boluntario arituko dira lanean. Orritzek egun horretan dantzaz gozatzera gonbidatu ditu sakandarrak.



Dantzari txikiak Folk-lore egunean

A maiur dantza taldeak larunbatean antolatutako Folk-lore egunean parte hartu zuten Sakanako hiru dantzari txiki talde: Irurtzungo Orritz, Uharte Arakilgo Galtz Orratz eta Lakuntzako Elai-Alai. Bes-

te zortzi herrietako dantzari txikiekin batera, 11:30ean Iruñeko Alde Zaharrean kalejiran ibili ziren. San Franzisko, Gaztelu eta Burgoen plazetan dantza erakustaldiak egin zituzten.

Institutuko ikasleak antzezle egun batez

Aurreko ostegunean Aralarko Mikel Donea institutuko ikasleek *Bar & Cenas El Katxondo* antzezlanaren zuten Iortia kultur gunean, goizean ikaskideenda-

ko eta arratsaldean, guraso eta publikoarendako. Ahalegina txalokekin ordaindu zien publikoak.

Miguel Mihuraren *Melocotón en almibar* obraren moldaketa taula-

ratuzuten. Hartangauregun dagoen ustelkeria egoeraren isla jaso zen. Ordu eta laurdeneko antzezlanaren atsedendietan prestatu dute Marian Utrera irakaslearekin.



Lau sakandar Artea Oinez erakusketan

Ordutegia

Asteartetik ostiralera: 18:00etatik 20:30era.

Larunbatetan:

12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30etara (18:00etan bisita gidatuak).

Igande eta jaiegunetan: 12:00etatik 14:00etara.

Apirilaren 4tik 27ra Iruñeko Gotorlekuko armen aretoko ganbaran ikusgai dago *Artea Oinez'14* erakusketa. Nafarroa Oinez jaiaren baitan antolatzen den jarduera kultur horretan 48 artistek parte hartzen dute obra banarekin, guztien aretan euskal artearen ikuspegia irudikatuz.

Lau sortzaile sakandarren obrak ikusteko aukera ematen du erakusketak. Mikel Okiñena irurtzundarrak kolorezko metakrilato piezatzkoak erabiliz egingako *Titris* (2013) lana dago ikusgai. Jose Ramon Anda Goikoe-txea bakaikuarren brontzezko *Sartu ahal baduzu* V eskulturaren maketa (2013) ere ikusgai dago. Bi altsasuarrek osatzen dute sakandarren ordezkariak: Dora Salazarrek argazkia eta pintura erabiliz kartoian sortutako *Donostia* (2013) eta Txuspo Poyok super 8a eta bideo digitala erabiliz egingako *Control* 1997 (2013).



Amillano Gotorlekuko labean

Maiatzaren 18ra arte dago ikusgai

Venancio Amillano hilaren 10ean zabaldu zuen bere erakusketa Iruñeko Gotorlekuko labean. Oroitzapenen indarrari buruz eta ustez ahulak izanagatik duten iraupenaren inguruan hausnarketa egiten du altsasuarrek *Oroi-mena* izenburuko erakusketan. Egunerokotasunean ezinbestekoak diren objektuak egurrean eta harrian irudikatatu ditu Amillanok. Oihalarri erreparatu dio batez ere. Hala, jantziak egurrez edo harriz egin ditu, ehunen biguntasuna eta erabili dituen materialen arteko kontrastea erakutsiz. Dozena erdi pieza jarri ditu Iruñean ikusgai.

Fisioterapia

Senoo

Javier Beloki
Fisioterapeuta · Osteopata

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Estructurala · Biszerala
- Minen errehabilitazioa

655 708 916
Burundabidea 3-1B · Etxarri Aranatz
sendofisioterapia@gmail.com

G

asteko >> : eguraldia

osteguna	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena
euria: %7	euria: %10	euria: %12	euria: %32	euria: %70	euria: %75	euria: %60
Min: 9 Max: 21	Min: 7 Max: 17	Min: 6 Max: 14	Min: 6 Max: 15	Min: 7 Max: 13	Min: 7 Max: 11	Min: 6 Max: 9

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	27.3	2.8	5.7
Altsasu	24	5	2.7
Aralar	18.6	1.5	3.2
Urbasa	21	2	0

: ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
22	29	7	14

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

beleixe guaixe

Apiribileko bazkide zozketa

APIRIBILEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera,
2. Gazte zulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Lacturala esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera
3. Gazte zulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Lacturala esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera
4. Gazte zulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Lacturala esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera

eta donostiko aquariumerako 2 sarrera

>> 11 galdera

Pello Altzueta

Sakanako XXV. Ibilaldi Handia

Testua: Maialen Huarte Arano



1. Apirilaren 26ean izanen da aurtengo Ibilaldi Handia. Aurtengoa nola antolatu duzue?

Badira urte batzuk Sakanako Ibilaldi Handiak bi martxa egiteko aukera eskaintzen dituela. Luzea da bat, 52,5 kilometro luze eta 3.100 metro arteko maldak izanen dituena. Bestea motzagoa, 24,4 kilometro izanen ditu eta 1.400 metroko garaierara iritsi behar izanen dira parte hartzaileak.

2. Aurten 25 urte beteko ditu Ibilaldi Handiak eta berrikuntzak ere iragarri dituzue.

Bai, aurten bukaeratik hasikogara. Sakanako Ibilaldi Handia hankaz gorajarridugu. Trinitaterantz abiatuko gara Txurregirantz beharrenean. Beraz: Trinitatea, Larrazpil, Aralar... Txurregin bukatzeko. Eta beste aldekata txiki pare bat ere bai. Hasteko, ahaztuta, erabat utzia izan dugun tontor bat ezagutuko dugu: Ergamendia. Irurtzango mendi nagusia da. Uste dugu 25. Ibilaldian ezin genuela bazterrean utzi. Bigarren aldekata ere hasieran dago. Goldaratzera igotzeko bide berria aukeratu dugu. Beraz, Ergatik jaitzikoan Latasaraino helduko gara, han Goldaratzeko bide zahar dotorea hartzeko. Hortik aurrera ez dago aldekata gehiagorik. Berai-nera Uhartetik igoko gara.

3. Nori bideratuta dago ibilaldia?

Luzeena egiteko prestakuntza nahikoa behar izaten da. Nafarroako gogorrena eta zailena da, eta zaharrena ere bada. Bigarrena ia edonork egin dezake, beti ere kirolarekin lotura minimoa duen edonork.

4. 25. edizioa izanen da aurtengoa. Zerk egiten du

erakargarri ibilbide hau urteotan?

Arrazoi bat baino gehiago egon daiteke. Batetik, Ibilbidea osatzeak berekin darama Sakanako mendilerroak eta mendiak ezagutu eta inguruak ikusteko aukera. Egun berezia eta polita izaten da, jendeak oso gustura hartzen du parte. Euskal Herriko ibilbide luzeen artean egoteak ere jendea bultzatu egiten du probatzera.

5. Nola ekin zenieten ibilaldi hau antolatzeari?

1980. urtearen inguruan, Iratxo-ko bazkide batzuei bururatu zitzaizen ibilbide luzeak martxa bat antolatzea. Proposatu zen ibilbidea honako hau da: Beriaineraino joan, gero Uharte-Arakilera jaitsi, ondoren San Migelera igo eta bukatzeko Irurtzunera itzultzea. Bitxikeria gisa, historiari erreparatuz gero, esaten dutenez, Irurtzango apaiz batek egin zuen ibilaldi hori lehenengoz, hau da, Trinitateko basiliza, San Donatoko basilzarekin eta San Miguelsantutegiarekin lotzen zituen ibilaldia. Eta horixe da Sakanako Ibilaldi Handiaren lehen urratsa.

6. 2005etik Euskal Herriko erdigune geografikotik pasatzen da. Nafarroan, Andiako Mendilerroan, San Donato basilatik gertu dago erdigune hori. Barizentruaren kontzeptuan oinarritu da Felix Isasa kalkulu horixe egiteko. Beriango menditik Olloko bailarantz doan bidetik gertu. Hurbil dago Lezitzua mendia. Olibesarioko sarioa deitzen zaio. 1.236 metro-tan kokatua. Monolito txiki bat kokatu dute. Horrek ere erakargarri egiten du ibilbidea.

7. Zenbat parte hartzaile izaten dira?

Urtearen arabera izaten da. Lau urtetik behin, Euskal Herriko beste hiru martxa handirekin egiten du bat. Urte horretan izaten da parte hartzaile gutxienean. Baina oro har, urtetik urtera hazi egin da kopurua. Iaz esaterako, 600 lagun inguru izan ziren proba egiten.

8. Noiz arte eman daiteke izena?

Jendeak azken unera arte itxoiten du izena emateko, eguraldiak zer iragarriko duen. Apirilaren 23ra arte internetez eman daiteke izena (iratxoelkartea.com) eta egunean bertan ere inskribatu daiteke.

9. Zenbat lagun aritzen zarete antolaketa lanetan?

Ibilaldiaren egunean 50 lagun izanen gara lanean. Urtarrilean hasi ohi gara lehen bilerak egiten. Astearen behin elkartu ohi gara Iratxo Elkarteko kideak eta eguna hurbildu ahala maizago.

10. Zein erraztasun ematen dizkiozue mendizaleei?

Bi ibilbideetan horniketarako guneak izanen dira eta Irurtzango kiroldegian dutxarako aukera zein masajeak jasotzeko aukera ere izanen dute. Edozein ibilbide bukatzen duten guztiei diploma eta oparitzo bana emanen zaie eta gainera mendiko materiala zozketatuko da.

11. Iratxotik zein gomendio egiten diezue mendizaleei?

Oso garrantzitsua iruditzen zaigu parte hartzaileek ingurumena zain dezaten. Mendietan barna ibili ohi gara eta inguruak aurkitu ditugun bezala utzi behar dira. Ibilbidean zabor ontziak izaten dira.

Guaixe KOMUNIKAZIOA

diseinua & inprimatzea

logotipoak
bisita txartelak
faktura-albaranak
eskuorriak...

argi@guaixe.net | 948 564 275
Foru plaza 23 - 1 | ALTSASU
www.guaixe.net | Beleixe irratia 107FM
guaixekomunikazioa.blogspot.com